


arteka



**ESTUTZEN
ZAITUEN
EZPATA**

— **M**oralismoz eta ideologia antzuz beteta agertu ohi den integrazioak gizarte kapitalistan integratzea esan nahi du, eta gizarte kapitalistan integratzeak, berriz, klase ertainen eraketarako baliagarria izatea. Bide hori hartzen ez duena ez-integratua da eta espazio guztietatik kanporatu behar da, gainera, eskubiderik gabeko soberakin bilakatzeko. Eta, ezkerreko politikak baliatuta bere integrazioa simulatu nahi bada, hori ez da bitarteko lagunkoi bat baino izango, migratzailea migratzaile gisa kokatzeko, hau da, «ongi etorri» bat baino ez.

Edukia

6

10

32

52

EDITORIALA

Arteka

**Arrazakeria,
proletalgoaren pobretzea**

ERREPORTAJEA

Arteka

**Proletariotza
migratzailea Europa
gotortuaren aurrean**

ELKARRIZKETA

Beatriz Villahizan,
Nafarroako SOS
Arrazakeriako
bozeramailea

**Damoklesen ezpata
beste jatorri bat
duen langileriaren
gainean eskegita**

KOLABORAZIOA

Irati Zubizarreta

**Migrazioaren analisi
kritiko batera hurbilpena**

Arrazakeria, proletalgoaren pobretzea

Editoriala

Mugimendu Sozialistaren jaio-tza eta hazkundera erabat lotuta daude bizitzen ari garen Kapitalistaren ekoizpen-krisi testuinguruarekin. Pobretzea, proletari-zazioa, despolitizazioa (edo politikaren pobretzea), klase ertainaren krisia... izan ditugu ohikoan gure tesi eta praktika politikoaren erdigunean. Orrialdeotan ere izan dugu horietan sakontzeko aukera.

Oraingoan, arrazakeria eta arraza-zapalkuntza ditugu mintzagai, pobretze-tresna gisa, eta ez pobretze soil gisa. Izan ere, arrazakeria ez da krisi kapitalistaren ondorio pasibo soila, hau da, pobretze sozial eta politikoa bere horretan; indar aktibo bat ere bada pobretze-eragile gisa. Arrazakeria pobretze-iturria da, degradazio soziala eragiten duen beste edozein zapalkuntza bezala.

Jakina da krisi kapitalistak haustura soziala eragiten duela, eta haustura horrek taldekatze sozialaren areagotzea zein talde sozial desberdinen kanporaketa dakartzala. Krisi kapitalistarekin batera, lehen batasuna eta integrazioa zena, aniztasun ez-integratu bilakatzen da orain. Soberakin soziala sortzen da, eta horrekin batera subjektu menderatu eta zapaldu berriak artikulatzen dira. Horrek ez du esan nahi, ordea, aurretik existitzen ez zirenik. Kontrara, hor zeuden, ekoizpen-modu kapitalistan bertan integratuta, funtzio jakin batzuekin, eta so-

zialki integratuta funtzio horien menpe; hau da, subjektu kapitalistaren parte integratzaile bat ziren. Krisiak, baina, elementu pobretuenak kanporatzen ditu, eta aurretiaz existitzen zen haustura azaleratu egiten da, gatazka politiko moduan: hor agertzen da arrazakeria, pobretze-tresna politiko gisa. Ez da, ordea, krisiarekin agortzen.

Arrazakeria estuki lotuta dago krisiarekin, baina bereziki klase ertainaren desintegrazioarekin. Klase ertaina, erdi-klase gisa, ez da klase antzu edo neutral bat sistema kapitalistarentzat; hau da, ez da bi poloen artean kokatzen den klase ez-funtzional bat. Hegemonia sortzaile eta zentzu komunaren eramaile da klase ertaina. Kultura-sortzaile den klase horrek sistema kapitalistaren kohesio funtzioak betetzen ditu; horregatik, hain justu, nahasten du kultura bere neurrira eginda-ko ekoizpen ideologiko-merkantilarekin, eta kultura nazioarekin, izan ere, klase ertaina da nazioa. Klasearen desintegrazioarekin, funtzio horiek utzikieran erortzen dira eta integrazio sozialerako tresnak agortzen dira. Lehen integratzailea eta harmoniatsua zen klaseak, bere hondamendiaren arrazoia aurkitzen du bere pribilegioen ekoizle izan direnengan: besteak beste, pertsona migratzaileak eta emakumeak –biak ala biak proletarioak, eta soilik proletarioak diren heinean dira migratzaile eta emakume– bilakatzen dira jopuntu.

Arrazakeria ez da krisi kapitalistaren ondorio pasibo soila, hau da, pobretze sozial eta politikoa bere horretan; indar aktibo bat ere bada pobretze-eragile gisa. Arrazakeria pobretze-iturria da, degradazio soziala eragiten duen beste edozein zapalkuntza bezala

Lehen integratzailea eta harmoniatsua zen klaseak, bere hondamendiaren arrazoia aurkitzen du bere pribilegioen ekoizle izan direnengan: besteak beste, pertsona migratzaileak eta emakumeak –biak ala biak proletarioak, eta soilik proletarioak diren heinean dira migratzaile eta emakume– bilakatzen dira jopuntu

Desintegrazioa bidean den klase ertainak bi aukera ditu: bere patua onartzea edo horri aurre egitea. Lehen bidea hartzen duenak, hau da, bere proletarizazioaren gertutasuna eta nahitaezkotasuna onartzen duen klase ertainak, etsaia bere egoera sozial berriaren arabera identifikatzen du. Ogibide proletarizatueta kondenatuta dagoen klase ertain horrek konpetentzia berria du: lehenago bere pribilegioen ekoizle ziren, baina batik bat bere pribilegioak sozialki baliagarri egiten zituzten pertsona migratzaileak –pribilegioak pribilegio eza behar baitu sozialki baliagarria izateko– dira etsai konpetentzia kapitalistaren mundu honetan, migratzaile horiek klase ertainari bere lan berri proletarizatua kentzen ari zaizkiolakoan, nahiz eta benetan alde-rantziz izan; hau da, bera ari da migratzaileei lana kentzen saiatzen. Bigarrena hartzen duenak, hau da, kondizio sozialari eusteko tresnak dituen klase ertainak, ordea, krisian den Estatu kapitalistan bilatzen du sostengua. Klase ertainaren biziraupen artifiziala Estatuaren diru-laguntzen bidez bermatzen da. Krisi kapitalistak, ordea, Estatuaren gaitasunak murrizten ditu aipatutako zereginerako. Horrek murrizketak eskatzen ditu Estatuaren gastuetan, eta lehen kaltetua proletalgoa izan behar da, baina, bereziki, erraz identifikatu eta isolatu daitekeen proletalgoa: hasieratik bertatik funtzio subordinatua bete duen eta sozialki zokoratua izan den pertsona migratzailea.

Harritzekoa izan daiteke pertsona migratzaileen integrazio ezaz jardutea, beren kanporatzea klase ertain proletarizatuaren biziraupenerako beharrezko bilakatzen denean. Errealiki, hamaika sasi-trikimailu kultural eta ideologiko erabili arren –telebistan ohikoak dira auzo-zurrunmuru penagarrak–, integrazio sozialerako gaitasunen agortzeak honakoa esan nahi du: proletalgoak, eta kasu honetan zehazki proletalgo migratzaileak, jada ez du funtziorik betetzen burgesiaren boterearen ekoizpenean eta, ondorioz, jada ez da baliagarria klase ertainaren pribilegio-sistema eraikitzeko. Hau da, proletalgoa ez da integratzen, ekoizpen prozesu kapitalistatik kanporatua izan delako, berehalakoan.

Egiazki, ordea, pertsona migratua ez da inoiz guztiz integratua izan. Hala izan behar da gizarte kapitalistan. Integrazioa bera tresna ideologiko eta kultural bat da komunitate jakin bat indartzeko, beti komunitate horretan onartzen ez direnen aurka, noski. Nazio baten eskubideen aitortzaren atzean, giza eskubideen mugaketa aurkitzen da, eta beste guztiei eskubide horiek ez onartzea. Berdin dio zein zentzutan definitzen den komunitate horrekin partaide izatea: beti utziko du norbait kanpoan. Kontua da nor uzten den kanpoan eta zein baldintzatan. Arrazismoaren auzia argigarria dezentzu horretan. Baita nazionalismoarena ere. Biek, modu batera edo bestera, langile klasearen parte handi bat uzten dute kanpoan, eta beti proletarizatuen. Nazionalismoa, esaterako, nahiz eta naziotasunaren definizio aurreratuen eskaini, beti datza zehaztean nor ez den bere taldekoa eta nori ez zaizkion onartu behar talde horrek bermatzen dituen eskubideak. Eskubide horiek, noski, klase ertain nazional bati onartzen zaizkion eskubideekin bat egiten dute.

Kanporatze prozesu horren jarraikortasun eta errepikakortasunak ezaugarritzen du arrazakeriaren funtzio politikoa eta bere ondorio oinarritzkoena: arrazakeriak proletalgoaren pobretze orokorra dakar. Arrazakeriak pertsona migratzaileen marjinazioan eta debaluazioan laguntzen du. Pertsona horiek lan indar berdin gisa –eskubide berdinekin, alegia– sozialki integratzea ezinezko egiten du. Horregatik, arrazakeriaren emaitza langile klasearen debaluazio orokorra da.

Debaluazio hori, lehenik eta behin, ekonomikoa da. Langile-estratu baten debaluazioak haren baliok ekonomikoaren galera esan nahi du, eta horrek ekoizpen-adar jakin bateko langile guztien debaluazioa dakar. Era berean, debaluazio horrek burgesiaren boterearen handitzea dakar berekin, eta horrek langile klasearen debaluazio orokorra esan nahi du. Hori ez da, askotan esaten den bezala, auzi kultural bat: inork ez du lan egin nahi gutxiagoren truke eta ez da miseria, zapalkuntza eta pobrezia osoa justifikatzeko gai den kulturarik. Halakorik iradokitzea, hori bada arrazakeria. Arrazakeria eta debaluazioa zerbait gehiago ere badelako: pobretzea da, pobretze soziala eta kulturala, gizatasunaren pobretzea, eta komunismoaren potentzia askatzaileen mutilazio politikoa.

Lehenago esan dugu desintegrazioa bidean den klase ertainak bi aukera dituela. Bada, ordea, azpiaukera bat, bigarren aukerari lotua. Izan ere, desintegrazio egoera horretan integrazio nahia-ri eusten dion klase ertainaren estratu bat dago, ezkerreko politikekin identifikatzen dena. Estatua marjinazio tresna bezala erabili nahi duen eskuineko klase ertainak bezala, ezkerreko hegala Estatuan aurkitzen du marjinazio hori saihesteko aukera. Biek ala biek, ordea, helburu berdina dute. Lehenak klase ertainaren integrazioa –eta batasuna– bilatzen du migratzaileak integraziotik kanpo utziz, edo migratzaileen integrazioaren aurka. Bigarrenak, ordea, migratzaileei integrazio estatusa eman nahi die, klase ertainaren pribilegioak ekoizten jarrai dezaten.

Azken batean, moralismoz eta ideologia antzuz beteta agertu ohi den integrazioak gizarte kapitalistan integratzea esan nahi du, eta gizarte kapitalistan integratzeak, berriz, klase ertainen eraketarako baliagarria izatea. Bide hori hartzen ez duena ez-integratua da eta espazio guztietatik kanporatu behar da, gainera, eskubiderik gabeko soberakin bilakatzeko. Eta, ezkerreko politikak baliatuta bere integrazioa simulatu nahi bada, hori ez da bitarteko lagunkoi bat baino izango, migratzailea migratzaile gisa kokatzeko, hau da, «ongi etorri» bat baino ez. ●

Integrazio sozialerako gaitasunen agortzeak honakoa esan nahi du: proletalgoak, eta kasu honetan zehazki proletalgo migratzaileak, jada ez du funtziorik betetzen burgesiaren boterearen ekoizpenean eta, ondorioz, jada ez da baliagarria klase ertainaren pribilegio-sistema eraikitzeko

Proletariotza migratzailea Europa gotortuaren aurrian

Testua — **Arteka**

Irudia — **Lander Moreno**



«Europarrok frantziar erako lorategi gisa eraiki dugu Batasuna, txukun, polit, tentuz, baina gainerako mundua oihan bat da. Eta oihanak gure lorategia jatea nahi ez badugu, espabilatu egin behar dugu»

Josep Borrell, Europako Batzordeko lehendakariordea

2008ko Krisi Handiak eta 2015eko errefuxiatuen krisiak Maastricht (1992) eta Schengen (1995) itunen oinarri materialak desegonkortu zituzten Europako bloke inperialistan. Europar Batasunaren sorrerako akordio horiek Sobietar Batasunaren aurkako garaipen-une historiko bati eta estatu-nazioen gobernantza-paradigma estua gainditzeko garapen kapitalista jakin bati dagozkie. Bi faktore horiek aukera ematen zuten metaketa kapitalista kontinentera zabaltzeko, eta, oro har, Europako oligarkia finantzarioaren eta industria burgesia alemaniarraren nagusitasun politiko eta ekonomikoaren pean, goranzko integratzeko itxaropenak sortzen zituzten hainbat potentziarengan. Schengengo akordioak, zehazki, kapitalistek «pertsonek eta kapitalen zirkulazio askea» gisa izendatzen duten printzipioa ezartzen du. Horrek, funtsean, lan-indarraren zirkulazio askea eta Europa mailako mugarik gabeko merkataritza-askatasuna esan nahi du.

Dena dela, planak laster erakutsiko zituen egiturazko ahuleziak. Alde batetik, potentzia horiek garapen maila ezberdinak zituzten metaketa kapitalistari dagokionean. Horrek desoreka komertzial eta finantzario izugarriak dakartza berekin, gaur egun ere EBren batasuna hausteko mehatxua egiten dutenak; zorraren krisia, COVID-19aren pandemiaren aurrean Europako funtsen auzia (1) edo egungo krisi energetikoa (2) dira adibideetako batzuk. Bestalde, batasunaren ezaugarri diren ongizate-sistemei –zeinak beheranzko joera nabarmenean dauden– eusten dien zurrumbilo inperialistak hildakoak, miseria eta desplazatuak sortzen ditu periferia globalean (3). Horren ondorioz, denbora-tarte labur samarrean, Ekialde Hurbiletik, Saharaz azpiko Afrikatik eta Magrebetik ihesi doazen milioika pertsona munduaren zati honetako mugetara bultzatzen dituzte. Europako Banku Zentralaren lorategiko aberastasun materialaren birbanaketan modu batera edo bestera sartuta dauden eragileek arriskuan ikusten dute beren posizioa, eta hainbat ameskeria sortzen dituzte nazio-estatu subiranoen harresi zaharkituetan endroke identitarioak egitearekin.

MIGRAZIOA GAUR EGUN

Migratio-koiunturaren ideia bat egiteko besterik ez bada ere, gaurkotasun orokorreko datu batzuk eta hainbat gertaera zehatz azalduko ditugu. Migrazio-fluxuen kuantifikazioa, konkretuki, funtsezkoa da gaur egungo migratio-ereduak aztertzeke. Batez ere, faktoreek eta politikek jatorrizko eta helmugako herrialdeetan dituzten ondorioak aztertzeke. Alabaina, alor horretan dago datu orokor gutxien, baita migratzaileen desagerpenari, migratio irregularrari, pertsonen kontrabandoari, migratio-politiken eraginari edo migratzaileen osasunari buruz ere. Migrazio-fluxuei buruzko datuak Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) kide diren munduko 45 herrialdetan baino ez dira biltzen, edo, asko jota, munduko herrialde bakoitzeko estimazio bat dago. Ordea, informazioa ematen duten herrialdeek erabiltzen dituzten datuak biltzeko kontzeptuak, definizioak eta metodologiak askotan ez dira homologarriak, eta horrek zaildu egiten du nazioarteko fluxuak alderatzea.

2016an, 5 milioi pertsona ingurukoa zen ELGAko herrialdeetako sarrerara iraunkorra. Mendearen hasierako gorakada handiaren eta 2007an lortutako gehieneko zifraren ondoren, ELGAko herrialdeetan pertsonen sarrerara iraunkorrak nabarmen jaitsi ziren 2008an eta 2009an, munduko finantzia-krisiaren hasierarekin batera. Hala ere, migratio-fluxuak ia % 25 hazi dira 2011tik, 4 milioitik ia 5 milioira igaro baitziren 2017an. Hazkunde hori, batez ere, arrazoi humanitarioengatik Europara egindako migratioak eragin zuen. 2017an izandako beherakadaren ondoren (neurri handi batean migratzaile humanitarioen sarrera-kopurua jaitsieragatik), ELGAko herrialdeetara egindako migratio-fluxuek gora egin zuten berriro 2018an, eta sarrerara iraunkorra 5,3 milioi ingurukoa izan zen. Erroldetako datuetan oinarritutako mundu mailako kalkuluen ara-

bera, 2010 eta 2015 artean 37 milioi pertsonak utzi zuten jaioterria beste herrialde batean bizitzera jartzeko, hau da, munduko pertsonen % 0,5ek (4). Mugei dagokienez, Montrealgo Quebecoko Unibertsitateak (Kanada) egindako ikerketa batek dio 1990ean 15 muga-horma zeudela munduan, eta 2019an gutxienez 70 zirela (5). EBko muga-agentziaren estatistiken arabera, Europako agintariek 139.000 pertsona inguru kanporatu zituzten (batez ere Ukrainatik, Albaniatik eta Marokotik) 2019an, deportatuak izateko arriskuan zeuden 298.000 pertsonetatik (6).

Migratio-joerak ikuspegi orokorra batetik aztertzen dituzten datu berriagoei erreparatzen badiegu, egoera are etsigarriagoa dela ikusiko dugu. *Global Migration Indicators 2021* (7) txostenaren kalkuluen arabera, 2020an 281 milioi pertsona bizi ziren beren jaioterrietatik kanpo, hau da, populazio globalaren % 3,6. Duela bi hamarkada, 2000ko hamarkadaren erdialdean, kopurua 153 milioikoa zen. 2020ko biztanleria migratzaile hori era xeheago batean aztertzen badugu, gutxienez 135 milioi emakumeak ziren, 164 milioi batez ere lan-arrazoiengatik mugituta koak, beste 40,9 milioi haurrak eta 26 milioi pertsona aitortutako asilo-eskatzaileak edo errefuxiatu erregistratuak. Bestalde, kalkulatzen da 35-40 milioi pertsonak emigratzen dutela bost urtean behin. Bide horri jarraikiz, badakigu gutxienez 82,4 milioi hertsadura zuzenaren pean egin behar izan zutela alde (gatazka armatuak, indarkeria orokortua edo giza segurtasuna urratzen zuten antzeko arrazoiengatik), 30,7 milioi ingurumen-hondamendien ondorioz lekuz aldatu direla berriki edo 2014 eta 2020 artean emigratu zuten 40.000 pertsona baino gehiago hil zirela ibilbidean zehar. Azken datuen arabera, 40 milioi migratzaile baino gehiago esklabotza modernoaren biktima dira. Aurrera begira jarrita, 2030erako, EBn immigrazioaren hazkunde % 21-44 artekoa izatea espero da. Migratzaileen onarpen publiko globalak, bestalde, okerrera egin du azken urteotan: aipatutako adierazlea 2016an

5,34an zegoen, eta 2019rako 5,21era jaitsi zen.

Behin migratio-egoeraren argazki orokorra datuen bidez eginda, gaurkotasuneko zenbait gertakari erreparasatu ditzakegu. Etxean bertan, Irunen (Gipuzkoa) zehatzago esanda, ikusi dugu nola 2022an hainbat pertsona ito egin diren Espainiako eta Frantziako estatuen arteko muga Bidasoa ibaitik igaro nahian. Pixka bat hegoaldera jota, joan den ekainaren 25ean, 24 bat pertsona hil zituzten indar polizialek Melillako muga zeharkatzen saiatzen ari zirela. Gertatutakoaren aurrean, eskuin muturrak eta Espainiako Estatuko ezker parlamentarioak jarrera bera hartu zutela sumatu zen. Pedro Sanchez presidenteak «eredugarritzat» jo zuen Marokoko indar polizialen jokabidea, haren gobernu iraingarria sostengatzen duten alderdi politiko guztien adostasunarekin. Santiago Abascalak honela ebatzi zituen gertakariak uztailaren 12ko eztabaida parlamentarioan: «Hesi onak bizilagun onak egiten dituzte». BBC telebista kate britainiarraren dokumental batek duela gutxi aditzera eman duenez, Espainiako Polizia hilketen lekuko izan zen, eta ez zituen eragotzi. Alderantziz, «gorpuak Marokora arrastaka eramatea» egozten die Espainiako indar polizialei. Bestalde, 70 lagunek desagertuta jarraitzen dutela eta Espainiako Gobernuak segurtasun kameretako irudiak ezkutatutituela ohartarazi zuten. Erresuma Batuan, Boris Johnson lehen ministro ohiak hainbat migratzaile Ruandara deportatzeko asmoa azaldu zuen. Gobernu britainiarrak eta Paul Kagame Ruandako presidenteak akordio bat sinatu zuten apirilaren 14an, zeinak Londresek «legez kanpokotzat» jotzen dituen pertsonak Afrikako herrialdera indarrez bidaltzea ahalbidetuko zuen. Horretarako, britainiar gobernuak 155 milioi dolar eman zizkion Ruandako gobernuari. Erresuma Batuko prentsaren arabera, helburua «migratzaile ekonomikoak» deportatzea da, hau da, lan-beharrengatik emigratzen duten langileak deportatzea.

***Aurrera begira jarrita,
2030erako, EBn
immigrazioaren hazkundera
% 21-44 artekoa izatea
espero da. Migratzaileen
onarpen publiko globalak,
bestalde, okerrera egin du
azken urteotan: aipatutako
adierazlea 2016an 5,34an
zegoen, eta 2019rako
5,21era jaitsi zen***

KAPITALISMOA ETA IMMIGRAZIOA

Produkzio-modu kapitalistan, im-migrazioa ez da kontingentzia bat. Are gehiago, termino absolutuetan, im-migrazioa agerikoagoa da merkataritza eta kapitalaren esportazio/inportazio zirkuitu globalak nazioartekotzen diren heinean. Eta gerra edo krisi gordineko garaietan agerikoagoa bada ere, gaizki genbiltzake une horietara joko bagenu immigrazioaren gakoa topatu nahian; aitzitik, logika sozial kapitalistaren izaerari berari begiratu behar genioke. Alde batetik, merkaturia, oro har, nazioartekotzen ari denez, lan-indarraren merkaturia ere nazioartekotu egiten da pixkanaka, horrek dakarren mugikortasunarekin edo, bestela esanda, migrazioarekin. Bestalde, kapitalen nazioarteko lehiak herrialdeen arteko bizi-mailetan ere eragin du historikoki, eta horrek herrialde batzuetan bizitza beste batzuetan baino jasangarriagoa egiten du –beste batzuetan, berriz, jasanezina da zuzenean–. Bi faktoreek bat egiten dute migrazioaren kausa nagusia den horretan: biziraute saiatzea, ezberdintasunek, ziurgabetasunak eta soldatarekiko mendekotasunak gidatutako mundu batean.

Dena den, immigrazioaren arazoa, hau da, iritzi publikoarentzat duen izaera negatiboa, ez dago herrialde batetik bestera aldatze hutsean, atzerrian finkatzeko. Lan-kontratu bat sinatzen denean edo atzerrian enpresa bat eratzen edo erosten denean, bizi garen gizarteak atzerritarra besoak zabalik hartzeko joera du: balio handiagoa, aberastasun handiagoa. Txanponaren beste aldea, «garunen ihesa» edo kapital-kanporatzea deiturikoa, alegia, nazioari modu negatiboan eragiten dion emigrazio gisa ulertzen da. Baina, oro har, logika kapitalistaren arazoa ez dago adar nazional batetik bestera gertatzen den kapitalaren migrazioan. Arazoa sortzen da emigratzen duena ez denean merkantzia bat, soberan dagoen biztanleria baizik:

kapitalari momentuan baliagarriak ez zaizkion pertsona-talde handiez ari gara, bizirauteko baliabideak eskuratzeko aukera soldataren mende duen gizarte batean irautea bilatzen dutenak. Aldi berean, hala ere, izaki biluzi izateagatik, *default* egoeran beste herrialde batzuetara iristeagatik euren lan-indarra baino ez dutenak, birtualki baliagarriak dira kapitalarentzat. Eta ikusi besterik ez dago nork egiten dituen lanik gogor eta prekarioenak. Ez da harritzekoa, zintzotasun ariketa batean, Joseph Muscat Maltako lehen ministro ohiak esan izana nahiago zuela immigranteek egitea eguzkipeko lan gogorrak, biltzea zaborra edo kualifikaziorik gabeko lanak egitea, enplegu kualifikatu eta erosoagoak maltarren-tzat gordeta (8).



Arazoa sortzen da emigratzen duena ez denean merkantzia bat, soberan dagoen biztanleria baizik: kapitalari momentuan baliagarriak ez zaizkion pertsona-talde handiez ari gara, bizirauteko baliabideak eskuratzeko aukera soldataren mende duen gizarte batean irautea bilatzen dutenak

Etsipena kapitalak soldatak murrizteko eta lan-baldintzak gogortzeko erabiltzen duen bitartekoa da; mendekotasunean oinarritutako diziplina-tresna da. Horregatik, Madjiguène Cissé-k dion bezala, egoera irregularran dauden pertsona guztiak beren jatorrizko herrialdera bidaltzeko ideia hitzontzikeria hutsa da, Europako gobernuek ez baitute inoiz horrelako proiekturik planteatu, ezta planteatuko ere. «Paperik gabekoen presentzia askotan onartzen da, ekonomiaren sektore batzuek ez luketelako funtzionatuko haiek gabe», ziurtatzen du ekintzaile senegaldarrak. Are gehiago, *Global Migration Indicators* txostenak gogorarazten digu 2015ean lan-indar migratzaileak gutxienez 6,7 bilioi dolarrekoa zela, hau da, munduko Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 9,4 baino gehiago langile migratzaileengandik zetorrela (9).

«Paperik gabekoen gaineko kontrola erraz eskura daitekeen eskulan merkea izateko modu bat da, eta, aldi berean, lan-merkatua kontrolatzen du», argitzen du Cissé-k. Atxilotutako etorkinen zati bat zentroetan sartu edo kanporatu egiten badute ere, bere arabera «besteak beren kasa abandonatzen dituzte, enpresaburuen gozamenarako» (10). Sandro Mezzana eta Brett Neilsonen hitzetan, kapitala «aldi berean lanaren mugikortasuna balorizatzen eta eusten» saiatzen da (11). Hori dela eta, pertsonen etorrera masiboa, lehenik eta behin, arazo bat da kapitalarentzat. Gastu bat da Estatuarentzat, kudeaketa publikoaz eta ongintzako erakundeen bidez ematen diren «gizarteratzeko» laguntzez gain, mugako hesietarako, kontrol polizialerako eta Atzerritarrak Barneratzeko Zentroetarako inbertsioak eskatzen baitizkio. Maila ekonomikoan, batzuetan, hainbat arrazoi direla medio, ezinezkoa da migratzaile guztiak lan-indarraren merkatuan integratzea: Arrazoi horietako batzuk dira formakuntza falta edo hura homologatzeko ezintasuna, tokiko

hizkuntza menperatzeko zailtasunak, nagusien aurreiritzi xenofoboak, edota lan-indarraren merkatuan eskaria eta eskaintza bat ez etortzea. Horrek esan nahi du, era berean, zenbait proletario migratzaile ezkutuko ekonomiaren esparruan erortzen direla, mafietan, delinkuentzian, etab. Hala ere, etsita dauden pertsonak izanagatik, oso zaugarriak dira, eta beraz, kapitalarentzat baliagarriak ere izan daitezke; lan-indar merkea, diziplinagarria, eta, askotan, legearen aurrean existitzen ez dena delako, horrek dakarren guztia-rekin. Kontraesan horretan mugitzen da immigrazioaren fenomenoak logika kapitalistan: batetik zama, bestetik aukera; baina beharrezko fenomenoak, azken batean. Garrantzitsua da nabarmentzea atzerriko langileak atzerritartasun legearen mende daudela, eta lege horrek baldintzak ezartzen dituela langile horiek lan-baldintza okerragoak onartu behar izan dituzaten; izan ere, bai paperak lortzeko, bai paperak berritzeko, lan-harreman egonkorra frogatu behar da, edo lan-harreman hori duenaren bikotekidea izan behar da.

*Fluxu horiek hodi egonkor
samarretatik igaroko balira
bezala existitzen badira,
gizarte kapitalistaren
ezegonkortasunak hodi
horiek berariaz jartzeko
joera duelako da. Eta emaria
handitzen bada, emari horren
jatorriko eremuan bizitzak
okerrera egiten duelako da*

Migratzaileak bizitza hobe baten bila beste herrialde batera joatea erabakitzen duela interpretatzeko joera dago, hartutakoa borondatezko erabaki bat balitz bezala. Baina, egiari zor, hori gertatzen bada, horren atzean migratzailea emigratzera behartzen duen testuinguru oso bat dagoelako da. Baliabideak soberan dauden mundu batean hobeto eta okerrago bizi diren herrialdeak egote hutsa, bere horretan, kontraesan ikaragarri batek zeharkatzen duen gizarte baten sintoma da. Jakina, hemen aipatuko dugun migrazioa ez da migrazio «askea». Hau da, ondo samar bizi arren, *mundua deskubritu* nahi izatea, beste herrialde batzuetan lan egin nahi izatea haien kulturak ezagutzeko, boluntariotza egitea norbere kontzientzia lasaitzeko, etab. Hemen migrazio-fluxu handiak ditugu hizpide, ez bakarrik gerrak eta jarpen politikoak eragindakoak, baita pobreziak, goseak eta krisiak eragindakoak ere. Fluxu horiek hodi egonkor samarretatik igaroko balira bezala existitzen badira, gizarte kapitalistaren ezegonkortasunak hodi horiek berariaz jartzeko joera duelako da. Eta emaria handitzen bada, emari horren jatorriko eremuan bizitzak okerrera egiten duelako da.

Nahikoa sufrimendu ez balitz beste herrialde batera emigratzea bera, familia eta lagunak atzean utzita, itsasoan nahiz mugako postuetan bizitza arriskuan jarriz, migratuak era guztietako segurtasun faltak jasan behar ditu behin helmugara helduta; are, xenofobia da gehien pairatzen duena. Xenofobia estuki lotuta dago logika kapitalistarekin eta arrazakeriarekin. Arrazakeria gizarte burgesa finkatu baino askoz lehenagotik gertatu den fenomeno bat da, erreportaje hone-tan aztertuko ez diren testuinguru eta dinamika batzuen pean. Hemen axola zaiguna da kapitalismoak arrazismoa bere egin eta erreproduzitzen duela, besteak beste, xenofobiaren bidez. Kapitalak langileen banaketan interes objektiboa duenez, diskurtso xenofobo eta arrazista funtzionala da bereztat, langileek elkarri aurre egitea lortzen duelako, lehian jartzen dituelako eta haien balizko batasun potentziala ekiditen duelako. Izan ere, azken hori elementu oso arriskutsua da harreman kapitalistaren erreprodukzioarako. Gauza ez da hori beti eta modu kontziente nahiz konspiratiboan egiten dela –aurrerago ikusiko dugu zehatzago–, baizik eta lan-merkatuko lehiak berak langileen arteko liskarra sortzen duela nazionalitate-arrazoiengatik, eta aurreiritzi arrazistak indartzen dituela. Kapitalak dinamika hori bere kasa utz

dezake, edo diskurtso politiko eta kulturalen bidez areagotu, baina argi dago liskar hori onuragarria dela beretzat. Egia esan, ekoizpen-unitate jakin baten barruan oso bestelako dinamika bat gerta daiteke, non nazionalitate desberdinetako langileak elkarren lagun egin daitezkeen euren arteko lankidetzaren bitartez, aurreiritziak atzean utzita edo berdinen artean lanean ari direla ohartuta, kultura-ezberdintasun orotatik harago. Horregatik, maiz ez da harritzekoa sentimendu xenofobia eta nazionalitateen arteko adiskidetasuna elkarrekin egotea. Zentzu horretan, ez dugu xenofobia arrazakeriarekin nahastu behar, eta ez soilik bi kontzeptuek intolerantzia ezberdinak izendatzen dituztelako, jakina. Arrazakeria, *a priori*, logika kapitalistari funtzionala bezain disfuntzionala izan dakiok. Izatez, burgesiak ez du arazorik arrazakeriaren aurkako kanpainak abian jartzeko; ikusi besterik ez daude UE-Faren «*Say no to racism*» edo Inditexen arraza anitzeko marketina. Xenofobia, aldiz, logika kapitalistak gidatutako gizartean automatikoki erreproduzitzeko joera dago, eta, esan dugun bezala, baliagarria da Kapitalarentzat. Hain zuzen ere, puntu horretan egiten dute bat arrazakeriak eta xenofobiak: xenofobiaren bidez, arrazismoa areagotzen da, «immigranteen mehatxua» pertsona arrazializatuen talde batekin edo besteekin identifikatzen delako.

Kontua ez da alderdi politiko honek edo hark xenofobia txertatzen duela langile- klasearen baitan, baizik eta diskurtso xenofobo horren existentziarako beharrezko baldintzak sortzen dituen eguneroko praktika bat dagoela

Izan ere, xenofobia, beste klase batzuekin gerta badaiteke ere, bere bertsiorik orokor eta gordinenean etorkin pobeekin gertatzen da. Lehen esan bezala, Kapitala eta aberastasuna besoak zabalik jaso ohi dira. Pobreziak, oster, oso bestelako harrera izango du, ustezko lan-mehatxuagatik («lana lapurtzen digute»), mehatxu kulturalagatik («ez dira integratzen») edo finantza-mehatxuagatik («laguntza publikoetatik bizi dira»), besteak beste. Dena den, «mehatxu» kulturalen eta «mehatxu» finantzarioen existentziaren abstrakzio bat egingo bagenu, hau da, sinesten badugu lan-indar etorkina bizitza nazionalen eta ekonomia ofizialean (ez ezkutukoan) erabat «integratzea» posible dela, gizarte-harreman kapitalisten esparruan xenofobiak beharrezkoa izaten jarraituko luke. Horrek aipatu ditugun «mehatxu» horiek ere beharrezkoak direla esan nahi du.

Lan-indarraren merkatze orokorra hainbat arrazoirengatik gerta daiteke, eta horietako bat lan-merkatuan lan-indarraren sekzio merkeago eta dizi-

plinagarriago bat sartzea da. Egoera zaurgarrian dauden eta bizi-maila baxuagoa duten etorkinek lanpostu jakin bat baldintza okerragoetan eta bertako langile batena baino soldata nabarmen baxuagoa onartzera behartuta badaude, horrek, eskura dauden lanpostuen kopurua murrizteaz gain, sektore horretako soldaten jaitsiera bultzatzen du. Lan-indarraren merkatuan, merkatu guztietan bezala, merkantzia horren jabeek elkarren artean lehia-tu behar dute merkantzia hori ahalik eta baldintza onenetan saltzeko. Merkantzia hori, hala ere, ezin da edozein preziotan saldu, eta nazio bakoitzean, historia- eta kultura-arrazoiak direla medio, gutxieneko soldata hori, eta haren batez bestekoa, ez du langileak bizirauteko behar duen gutxieneko kopuruak soilik zehazten, zatitxo bat aurrezteari eta aisialdiari ere badagokio. Nolanahi ere, argi dago migratzailea heldu ohi den xede herrialdeak, oro har, bizi-maila handiagoa izaten duela haren jatorrizko herrialdeak baino, eta horrek, azken batean, batez besteko diru-sarrera handiagoa esan nahi du. Esaten ari ginen moduan, pertsona migratzaileak bizi-maila okerragoa baldin badu, eta, gainera, soldata bat lortzeko edozer gauza onartzera behartuta badago, bere lan-indarra lan-merkatu nazional horretan ohikoa dena baino prezio merkeagoan salduko du. Jakina, baldintza okerragoetan eta soldata txikiago baten truke lan egiteko prest dauden pertsonak badaude, gutxieneko soldata eta lan-baldintza horiek izango dira sektoreko estandarra markatzen hasiko direnak. Cisséek honela azaltzen du: «Langile atzeritarrei eragiten dieten neurriak lan-merkatu osoa antolatzeko eta lan-indar osoa kontrolatzeko erabakitako politiken parte dira. Paperik gabeko langileak edozein motatako lan-baldintzak eta edozein soldata onartzera behartuz, langabeen sekulako langile-poltsa bat sortuz eta mantenduz, Estatua da lehia zuzenean antolatzen duena, soldatak jaitsarazten dituen eta langile batzuk beste batzuekin aurrez aurre jartzen dituen» (12).

Ondorioz, segituan heldu ohi da bertakoak diren langileen erreakzioa. Baina erreakzio hori ez da pertsona gehiago lanean aritzea -bakoitzak lanordu gutxiago egingo lituzke premia berberak asetzeko- zerbait negatiboa dela dioen logika sozial orokorraren aurkakoa izaten. Produkzio-harreman kapitalistak naturalizatzeak, hau da, munduaren antolaketa hau beharrezkoa dela pentsatzeak, lehiaren kontzientzia besterik ezin du sortu. Eta puntu horretan, era guztietako aurreiritzi arrazista eta nazionalistek lagunduta, langileen kontzientzia xenofobia sortzen da. Horregatik, kontua ez da alderdi politiko honek edo hark xenofobia txertatzen duela langile klasearen barruan, baizik eta diskurtso xenofobo horren existentziarako beharrezko baldintzak sortzen dituen eguneroko praktika bat dagoela. Politika burgesean egiten dena da errealitate sozial kapitalistan jada emanda dauden baldintza horiek aprobetxatzea masak haien alde mobilizatzeko; hori da populismo xenofobia. Zehatzago esanda, kontua ez da eskuin muturraren hauteskunde-agerraldiak Europako gizarteak eskuindarrago bihurtzea dakarrela, sozialdemokraziak aditzera eman nahi duen bezala; aitzitik, eskuin muturraren hauteskunde-agerraldiak agerian uzten du Europako gizarteak gero eta eskuindarragoak direla.



POPULISMO XENOFBOA: ERTAIN KLASAREN BUNKERRA

Krisi orokortu honek, «nazio barruko bizitza xumearen aurkako mundu globalizatuaren mehatxu» gisa aurkeztu nahi zaigunak, klase-aliantzak birmoldatzea eragin du. Nazional-populismoaren adierazpen politikoen artean egon daitezkeen desberdintasunak gorabehera (13), guztiek dute jokaera komun bat: itxiera erreakzionario bat gauzatzen da, eta, horren ondorioz, klase ertain kontserbadoreak Ongizate Estatu dekadente baten hondakinen artean gordetzen dira, gero eta parametro baztertzaileagoak erabilita.

Horrela, ikusten dugu eskuin muturak presio handia egiten duela botere exekutiboaren gogortasuna eskatzeko (polizia-kontrola handitzea, kaleen militarizazioa, salbuespen-legeak, oinarrizko askatasun politikoa ezabatzea), gizartearen ezinegona ziurtatuta dagoen eta Zuzenbide Estatu bake soziala mantentzeko bitarteko bat baino gehiago oztopo bihurtzen den une historiko honetan (14). Sozialdemokraziak, berriz, ez du zalantzarik Estatuaren aurrekontuak diru-zorro neutral bat balira bezala kudeatzeko, eta errepresio-neurriak gogortu eta justifikatu ditu. Horrela, denborak aurrera egin ahala zalantzarik gabe gogortuko den dinamika baten aurrekariak ezarri ditu.

Iker Madridek *El rumor de las periferias. A vueltas con el rap underground y el drill* (15) artikuluan gogoratzen duen bezala, Kultura Ikasketa Garaikideen Zentroaren ekarpena aipatuz, «"garai gatazkatsu"etan", gizarte-ezinegona adierazpen politikoa antolatutik aurkitzeko gai ez denean, ezinegon hori errugabeen gainera erortzen da». Tesuinguru ezegonkor horiek «izu moral» moduko bat sortzen dute herritarrengan, gogorarazten du Madridek. Beren mundua eta posizioa galtzeko beldurak gidatuta, zenbait giza-taldek etsai bat identifikatzeko joera dute, eta «balio tradizionalen» zaindari gisa agertzen dira. Egoera horretan, hain zuzen, ez dira falta izan Europako klase ertain-

naren gainbehera azaltzeko eta aurre egiteko errudun klasikoak: «eliteak», «ustelkeria», «subiranotasun nazionalaren galera» eta, nola ez, «etorkinak».


Errudun faltsu horiek guztiek eta kultura erreakzionarioak horiei esleitutako esloganek, egungo gauzen egoera modu arrazoituan azaldu beharrean, berez justua omen den aberastasunaren banaketa oztopatzen duten kanpoko eragile gisa agertzen dituzte. Leloa ezaguna da: «eliteak zekenak dira», «politikoak ustelak dira», «subiranotasun nazionala galtzeak ez du aberastasunik sortzen nazioarentzat» edo «etorkinak gure zergetatik bizi dira». Azken topiko horrek gure arreta merezi du; izan ere, aipatutako giza-taldea, «delitugileekin» eta langabeekin batera, lehen lan-indarraren soberakin gisa izendatzen genuena da, edo, Madridek aipatzen duen bezala, «soberakin negatiboa». Eduardo Matos-Martinen hitzekin, Madridek azpimarratzen du sektore horiek «bartzertze inklusibo» egoeran daudela. Hau da, «ekoizpen-ordenatik eta eskubide zibiletatik kanpo, baina Estatuaren dominazioaren eta haren errepresio aparatuen eremuaren barruan». Arrazoi beragatik, Emmanuel Rodriguez historialariak uste du herritartasunak «ertain klasearen perimetroa» duela (16). Gizarteko proletarioak eta pobreak jada ez dira halakotzat hartzen, «baizik integratuta ez dauden edo, are okerrago, integratzearen diren pertsonatzat», gehitu du Rodriguezek bere azken liburuan. Egileak Matos-Martinen ildo beretik jotzen du: «Estatuak mota guztietako politika "bereziak" aplikatzen ditu -ez-unibertsalak, beraz-, bereziki zuzenduak "ahal duenari aukera-berdintasun esparrua itzultzeko", integrazio "artifizialeko" gutxienekoak bermatzeko (pobreentzako politikak) edo indarkeria legitimoaren monopolioaren arau errepresibo inplizitua aplikatzeko». Ondorioz, etorkinak kide diren menpeko giza-taldea ez da eremu publikoan agertzen, ertain klaseko talde subsidiario gisa aitoritzen da, edo

pobre gisa agertzen bada, «gizarte-arazo» edo «mehatxu-leku» moduan agertuko da, Rodriguezek ondorioztatzen duenez. Miguel Mellino haratago doa *Gobernar la crisis de los refugiados* (17) lanean, esanez «klase agintarien eta talde sozial "natibo" batzuen artean adostasun politiko berri bat gauzatzen ari dela, *beste batzuen* (migratzaileak, beltzak, asiarrak, langile disidentziak, disidentzia politikoa, etab.) aurkako indarra, indarkeria eta errepresioa erabiliz». Ahulenen aurkako lintxamendu mediatiko eta poliziala txalotzen dela ikusten dugunean, arestian aipatutako *izu moral* horren instituzionalizazioaren lekuko gara. Europar Batasunean, prozesu horrek Mellinok *salbuespen-egoera berri* deitzen dionaren itxura hartzen du: jostura politikoko ibilgailu berri gisa eta herritarrek hierarkizatzeke gailu material gisa.

Ertain klasea, batez ere langile aristokraziak eta burgesia txikiak osatua, egoera ezin hobean dago politika horiek guztiak legitimatzeko. Burgesia txikiak, atzerriko Kapitalaren eta Kapital nazional handiaren mehatxupean, lehiakortasun-baldintzak berdindu nahi ditu merkatuan. Hain zuzen ere, haien interes politikoen artean honako hauek aurki daitezke: protekzionismoa, zerga progresiboak, eliteen botereari mugak jartzea, enpresa txiki eta ertainentzako babesak eta laguntzak, ustelkeria politikoa eta aukera-berdintasun ekonomiko-politikotik baztertuko lituzkeen araubide juridikoaren aurkako borroka, etab. Langile aristokrazia, bere aldetik, zalantza-tiagoa da. Oro har, prestazio publiko hobeen aldeko borroka politikoa eta bere proletarizaziorako norabidean bultzatzen duten politiken aurka aurkitzen da. Bientzat aurrekontu publikoen zorroa funtsezkoa da; beraz, zaku hori zerga zein jarduera ekonomiko nazionalaren bidez bete ezin izatea edo ekonomikoki «alferrikakoa» den gastuari eusteko ezintasuna (adibidez, etorkinentzako laguntzetan), mehatxu zuzena da haien izanarentzat.

«Klase agintarien eta talde sozial "natibo" batzuen artean adostasun politiko berri bat gauzatzen ari dela, beste batzuen (migratzaileak, beltzak, asiarrak, langile disidentziak, disidentzia politikoak, etab.) aurkako indarra, indarkeria eta errepresioa erabiliz»

MIGUEL MELLINO



Nahiz eta migratzaileak alderdi atzerakoietan soilik agertu diren arma politiko gisa, ez litzateke harritzekoa izango xenofobia ezkerreko oinarri sozial boto-emaiaren gero eta sektore gehiagotan sartzen hastea. Izan ere, gogora dezagun arku-parlamentarioaren eta hautesleen ezein aukera ez dagoela xenofobiaren baldintza historikoetatik salbuetsita. Euskal Herrian asko deliratu da ustezko «euskal DNA antifaxistari» buruz, baina gaur egun, 40 urte inguruko euskal bikote batek, bi seme-alaba, hipoteka, etxebizitza jabetzan, bi auto eta ondo ordaindutako lan egonkorrak dituenak, oro har, interes handiagoa du beherapen fiskaletan, hezkuntza-itunen hedapenean, kaleetako «segurtasuna» mantentzean, familia-soldatari eustean eta bere jabetza babestean, beste ezertan baino, bere burua «aurrerakoi» edo «ezkertiar» gisa identifikatu arren. Zer esan bikoite helduagoa bada, higiezin bat baino gehiago badu jabetzan eta erretiratuta edo erretiratzear badago. Deskribatutako gizarte-taldearen pisu demografikoa eta talde horiek egiten duten presio politikoa izugarria da herrialdean, eta horien kontserbadurismorako joera jada nabaria da Euskal Herriko bake soziala gehiegi aztoratu ez den egoeran, delinkuentzia-mailak oraindik baxuak direnean, erakunde autonomikoei nolabaiteko aurrekontu-oreka mantentzen dutenean, immigrazioa ez denean kontrolpetik atera eta eskuinak migrazio-fenomenoarekin egiten duen presio politikoa oraindik handiegia ez den bitartean.

Hala ere, azken datu eta gertakariak adierazten dute joera horiek aldatzen hasi direla. Euskal Autonomia Erkidegoko kriminalitate-tasa, adibidez, % 10 igo zen 2021ean. Jabetza pribatuaren aurkako delituak dira arau-hauste penal gehienak, eta aurreko urtearen aldean % 24,2 igo dira. Azpitalde horren barruan ohikoenak etxebizitzetako lapurretak izan ziren; % 18,1eko igotzea izan zuten 2020arekin alderatuta (% 18). EAJri lotutako *Deia* egunkariak zabaldutako datu ustez kezkarri ho-

40 urte inguruko euskal bikote batek, bi seme-alaba, hipoteka, etxebizitza jabetzan, bi auto eta ondo ordaindutako lan egonkorrak dituenak, oro har, interes handiagoa du beherapen fiskaletan, hezkuntza-itunen hedapenean, kaleetako «segurtasuna» mantentzean, familia-soldatari eustean eta bere jabetza babestean, beste ezertan baino, bere burua «aurrerakoi» edo «ezkertiar» gisa identifikatu arren


***Ez litzateke harritzekoa izango
etorkizun ez oso urrun batean
kriminalitatearen hazkundera
immigrazioarekin faltsuki lotzea,
gizartean integratuta dauden
sektore zabalen arteko deriba
autoritarioa areagotzea eta ertain
klaseak immigrazioari gogorrago
egiteko eskatzen hastea***

riek 2021eko datuen eta konfinamendua izan zen aurreko urtekoaren arteko konparazioetan oinarrituta atera dira. Beraz, datu horiek kezkarriak baino gehiago alarmistak dira, baina horrela azalduta, eragina dute iritzia sortzerakoan; are gehiago, kontuan izanda EAEn delituen gorakada ez dela guztiz faltsua. Espainiako Estatuko Barne Ministerioaren zifrak aztertuz gero, ikus daiteke 2022ko lehen hiruhilekoan erregistratutako 24.796 arauhauste penalek nabarmen gainditzen dituztela mugikortasun-murrizketen aurreko 2019ko 22.979 arau-hausteak (19). Gaurkotasuneko gertakariak eta horiei dagozkien erreakzioak are interesgarriagoak dira: Bilboko (Bizkaia) Aste Nagusian delitu gisa tipifikatutako 1.609 ekintza eta 157 atxiloketa egin zirenez, ELA, SVPE, CCOO, UGT eta Ezker Abertzaleko LAB sindikatua kexu ziren Bilboko Udalak Udaltzaingoko kalez jantzitako agenteak erdira murriztu zituelako, eta horregatik udal gobernuaren kudeaketa «negargarritzat» jo zuten (20).

Jose Mari Esparza Ezker Abertzalearen *Txalaparta* argitaletxeko editore historikoak *¿Migración? No, gracias* (*Immigrazioa? Ez eskerrik asko*) izeneko iritzi artikulua argitaratu zuen duela gutxi *Noticias de Navarra*-n (21). Aipatu dugun langile aristokraziaren ohiko xenofobiaren adibide ugari biltzen dituz testuak, baina egungo egoeran garrantzi kualitatibo handia duten bi elementu azpimarra daitezke. Alde batetik, hasieran aipatzen duen gertakaria: «Duela ez asko, nire herrian ezkerrearen hauteskunde ekitaldi batean, emakume batek hitza eskatu zuen eta galdera bat utzi zuen airean: Zer egingo dugu immigrazioarekin?». Bigarrenik, Esparzaren konklusio politikoa dago: «Ezkerretik horri buruz argi hitz egin hasten garenean, zirrikitu gutxiago utziko dizkiegu eskuinari eta Voxeko arratoiei. Eta, zalantzarik gabe, gehiago konbentzituko dugu nire herriko bizilaguna, orain ez baitu zertan lehen irabazten zuenaren erdia irabazi».

Joerak ikusita, eta jada espekulaziozko terminoetan hitz eginda, ez litzateke harritzekoa izango etorkizun ez oso urrun batean kriminalitatearen hazkundera immigrazioarekin faltsuki lotzea, gizartean integratuta dauden sektore zabalen arteko deriba autoritarioa areagotzea eta ertain klaseak *immigrazioari gogorrago egiteko* eskatzen hastea. Horren ondorioz, logikoa litzateke alderdi politikoei, sindikatuak eta gainerako eragile ezkertiarrak nolabaiteko hegemonia kultural zein politiko xenofoboa eurenganatzzea pixkanaka, nahiz eta diskurtso ez hain esplizituekin eta zentzu komunaren aitzakiapean egin, hala nola, esanez «kontrolatu beharreko arazo bat dela, gure bizimodua mehatxatzen duelako». Era berean, horretarako, «zoritxarrez, sakrifizioak egin beharko direla» esango dute.

Are gehiago, zenbat eta handiagoa izan alderdi politiko baten izaera nazionalista, orduan eta aukera gehiago dago pentsamendu xenofoboa bere proposamen politikoetan ezartzeko, kontu handiz bada ere. Nazionalismoak beti bere nazioaren, kulturaren, lurraldearen eta idiosinkrasiaren bizi-
raupena lehenetsiko duenez, arazo gisa aurkeztuko zaio identitate hori galarazten duen edo bertakoei «bizitza nazionalera» sarbidea zailtzen dien kanpoko eragin oro. Hortik datoz azkenaldian hainbeste nabarmentzen ari diren nazionalismoaren bi jarrerak: batetik, subiranotasun ekonomiko-politiko nazionalaren galeraren aurka, «antiglobalismoa»; eta, bestetik, bizi-baldintzen okertzearen aurka, xenofobia.



***Kapital indibidual edo
nazional honetatik edo
hartatik babes gaitezke,
baina ez Kapitalaren
botere inbertsonaletik.
Zentzu horretan, etorkina,
bizirauteko bitartekoen
bila herrialde batetik
bestera ihes egiten duena,
Kapitalaren boterearen
menpe egoteaz gain, ziur
aski beste edozein proletario
baino menpekoagoa da***

PROLETARIOEN ARTEAN PROLETARIOENAK

Oro har, gizartean «proletario» edo «burges» bezalako kategoria garbiak aurkitzea alferrikako ariketa da, determinazioak abstraitzen dituzten kategoria sinpleak direlako. Hau ez da akatsa, metodo kontua baizik. Gizartearen zientzia egiteko, abstrakzioa tresna bat da. Hala ere, errealitate materialean kategoria abstraktuak aurkitzeko zailtasun hori egiazkoa izanik, Mediterraneo pateretan bilatzea baino gauza errazagorik ez dago proletario kategoria purutasun osoan aurkitzeko.

Endnotes kolektiboak adierazten duen bezala, «herrialde aberatsago batera emigratzea izan daiteke, alde handiz, norbere lan-indarraren prezioa igotzeko modurik eraginkorrena» (22). Beste batzuetan, emigratzea izan daiteke lan-indarra saltzeko modu bakarra. Eta beste batzuetan, emigratzea izan daiteke erregimen zapaltzaileetatik eta gerretatik ihes egiteko modu bakarra. Azken kasu hori errefuxiatuena da –asilo-eskatzaile guztiak ez dira halakotzat hartzen; hainbat faktoreren mende daude: gatazka-eremua, jatorrizko herrialdea, etab.–. Hala ere, errefuxiatuak sarritan ustezko babeslekutik babestu behar izaten du. Estigma, lana aurkitzeko ezintasuna, legez kanpokoa izatea eta *apartheid* isila ez dira, hain zuzen, errefuxiatu batek bere babeslekuan aurkitu nahi lituzkeen elementuak. Baina migrazio-fluxu handien baitan, zentzurik ba al du errefuxiatuen eta migratzaileen artean bereizketa egiteak? Ez al dira migratzaile horiek guztiak beren herrialdeko bizi-baldintza kapitalisten errefuxiatuak? Kapitaletik, zoritxarrez, ezin gara errefuxiatu edo babestu. Kapital indibidual edo nazional honetatik edo hartatik babes gaitezke, baina ez Kapitalaren botere inbertsonaletik. Zentzu horretan, etorkina, bizirauteko bitartekoen bila herrialde batetik bestera ihes egiten duena, Kapitalaren boterearen menpe egoteaz gain, ziur aski beste edozein proletario baino menpekoagoa da.

Egia esan, migratzaileak ez du zertan kapital indibidual batekin soldatar harremanik izan, eta, batzuetan, ezkurtuko ekonomiatik harago ez zaio beste aukerarik geratzen. Jarduera horiek estigmatizatuta egoteak (zibilizazio «garatuen» kontzientzia fin eta hipokritaren baitan duten legitimotasun ezagatik), xenofobia ez ezik, etorkinek jasan behar dituzten miseriak ere areagotzen ditu mundu osoko proletarioen klase borroka historikoaren ondoriozko lan-babesak, mediku-aseguruek eta beste konkista batzuek estaltzen ez dituzten jardueretan. Edonola ere, etorkina soldatapeko harreman batean sartu edo ez, haren desjabetu izaera bereziak, beste edozein proletariok bezala bere bizitza bere kabuz erreproduzitzeko duen ezintasunak (baina bertako langileek baino zailtasun handiagoarekin eta are baldintza okerragoetan), proletario guztien artean proletarioena bihurtzen dute etorkina. Posizio horri gehitu behar zaio lehen xenofobiari buruz deskribatutako joera bikoitza. Alde batetik, bertako langilearen ustez *problematiko* gisa aurkezten da, eta horrek nazionalismoa eta etorkinarekiko gorrotoa sortzen edo areagotzen du: «Lehenengo bertakoak». Bestalde, langile atzerritarrekin lankidetzan eta zapalkuntza partekatuan bizitzeak interes komunak kontzientzia sor dezake. Azken kontzientzia hori indartzea politika sozialista internazionalista ororen zeregina da. Are gehiago xenofobia izanik proletarioen arteko lehiaren eta liskarraren arrazoietakoa bat eta, aldi berean, ondorioetakoa bat. Izan ere, migratzailearen egoera berezi hori potentzialki eta bitarteko jakin batzuekin, Kapitalarentzako *benetako arazo* bihur daiteke, laguntzen, harresien eta deportazioen bidez kudeatu ezineko arazo; klase kapitalistaren harremana erreproduzitzearen aurkako benetako mehatxu gisa egin beharko lioke aurre. Cissè argi mintzo da horri buruz: «Hasieratik saiatu gara erakusten gure borrokaren eta Frantziako langileen borrokaren arteko lotura. Sarritan esaten genuen borroka bat eta bakarra dela» (23). ●

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

- (1)** Castillo, J. *Fondos, condicionalidad y crisis: la tormenta perfecta que se cierne sobre la Unión Europea*. Artea, 2022.
- (2)** Narbona, I. & Hernández, I. *Energía y transporte: los síntomas del agotamiento de una época*. Artea, 2022.
- (3)** Artea. *Guerras imperialistas por delegación*. Artea 23, 2021.
- (4)** Migrazioare inguruko datuak dituen ataria. *Flujos migratorios internacionales*. migrationdataportal.org, 2020.
- (5)** Roura, A. *30 años de la caída del Muro de Berlín: 3 razones por las que las barreras fronterizas en el mundo aumentaron de 15 a 70*. (2019ko azaroaren 11). bbc.com.
- (6)** Repeckaite, D. *How Deportation Became the Core of Europe's Migration Policy*. (2020ko uztailaren 4a). jacobin.com.
- (7)** International Organization for Migration (IOM). *2021 Global Migration Indicators report*, 2021. 11-24. orr.
- (8)** Times of Malta. *"I don't want Maltese workers picking up rubbish" - Muscat* (2019ko maiatzaren 2a). timesofmalta.com
- (9)** International Organization for Migration (IOM). (2021) *2021 Global Migration Indicators report*. 23. orr.
- (10)** Cissé, M. *Palabra de sin-papeles*. Gakoa Liburuak. Donostia, 2000. 208-209. orr.
- (11)** Mezzadra, S., Neilson, B. *La frontera como método*. Traficantes de sueños. Madril, 2017. 77. orr.
- (12)** Cissé, M. *Palabra de sin-papeles*. Gakoa Liburuak. Donostia, 2000. 229. orr.
- (13)** Estaire, O. *Los populismos de derecha italianos: similitudes y diferencias* (2021eko urriak 6). descrifrandolaguerra.es
- (14)** Zuzenbide estatuaren etenduraren eta askatasun politiko eta zibilen murrizketaren gaian sakontzeko bi testu: Etxeberri, X. *Los estados de excepción que no tenían nada de excepcional*. Artea, 2021. Artea. *Pandemia y seguridad global, un acuerdo internacional contra la urbe*. Artea, 2020. gedar.eus.
- (15)** Madrid, I. *«El rumor de las periferias». A vueltas con el rap underground y el drill*. (2022ko uztailaren 17a). ikermadrid12.medium.com
- (16)** Rodríguez, E. *El efecto clase media. Crítica y crisis de la paz social*. Traficantes de sueños. Madril, 2022, 247-248. orr.
- (17)** Mellino, M. *Gobernar la crisis de los refugiados. Soberanismo, neoliberalismo, racismo y acogida en Europa*. Traficantes de sueños. Madril, 2021. 35-36. orr.
- (18)** Deia. *La criminalidad aumenta un 10 % en Euskadi con 84.781 delitos en 2021* (2022ko otsailaren 21a). deia.eus.
- (19)** Epdata. *País Vasco - Crimen: asesinatos, robos, secuestros y otros delitos registrados en cada comunidad autónoma*. (2022ko ekainaren 2a). epdata.es
- (20)** Olabarri, D. *«Me llega a apuñalar un poco más fuerte en el pecho y ahora estaría muerto»*. (2022ko abuztuaren 29a). elcorreo.com.
- (21)** Esparza, J. M. *¿Migración? No, gracias* (2022ko urriaren 22a). noticiasdenavarra.com.
- (22)** Endnotes. *Gather us from among the nations*. Endnotes #4 (2015eko urria). endnotes.org.uk
- (23)** Cissé, M. *Palabra de sin-papeles*. Gakoa Liburuak. Donostia, 2000. 229. orr.

BIBLIOGRAFIA

Cissé, M. *Palabra de sin-papeles*. Gakoa Liburuak. Donostia, 2000.

Frontex. *Strategic Risk Analysis 2022*. Varsovia, 2022.

Mellino, M. *Gobernar la crisis de los refugiados. Soberanismo, neoliberalismo, racismo y acogida en Europa*. Traficantes de sueños. Madril, 2021.

Mezzadra, S., Neilson, B. *La frontera como método*. Traficantes de sueños. Madril, 2017.

Rodríguez, E. *El efecto clase media. Crítica y crisis de la paz social*. Traficantes de sueños. Madril, 2022.

Sassen, S. *Inmigrantes y ciudadanos. De las migraciones masivas a la Europa fortaleza*. Siglo XXI Editores. Madril, 2013.

Waqcuant, L. *Los condenados de la ciudad. Gueto, periferias y Estado*. Siglo XXI Editores. Buenos Aires, 2013.

Testua — **Arteka**

Irudia — **Zoe Martikorena**

Damoklesen ezpata beste jatorri bat duen langileriaren gainean eskegita



Beatriz Villahizan,

Nafarroako SOS Arrazakeriako
bozeramailea



Beatriz Villahizanekin elkartu gara, Nafarroako SOS Arrazakeriako bozeramailearekin, langileria migratzaileak egun bizi duen errealitatea aztertzeko. Kausak, interesak, *errefuxiatu* kategoriarekiko kritikotasuna, pobretzea, emakume langileen egoera, arrazakeria, babes sozialerako sistema xantaia gisara erabiltzea, antolatzeko gakoak... Uler ditzagun kapitalismoari eusten dion Damoklesen ezpatari aurre egiteko giltzarriok.



**Zeintzuk dira sistemak
kontuan hartzen dituen faktore
nagusiak atzerriko jatorrizko
pertsonekin modu batera
edo bestera jarduteko?**

Klase soziala, baldintza sozioekonomikoak, jatorri geografikoa, arrazializazioa, generoa... Horrek guztiak sistemak modu batera edo bestera artatzea eragiten du, eta horrekin jokatzeko du kapitalismoak mundu osoan. Munduko ordena horrela ere azaltzen da: ipar global bat dago -zaugarria, esportagarria, deserregularizatua eta «zirkularra» izatea behar duen langile klasearen zatia inportatzen jarraitzen du-, eta hego global bat. «Zirkularra» izatearena Mariano Rajoyk aipatu zuen hauteskundeak irabazi zituenean, inolako lotsarik gabe. Esan zuen merkatuaren beharren nahierara maneiatu ahal izanen zuen eredu bat nahi zuela, eta, hain zuzen, horrela daude diseinatuta Atzerriarren Legea eta mundu mailako migrazio-politikak.

Jatorri geografikoari dagokionez, hego globalaren zati bat, adibidez, Euskal Herrira sar daiteke turista-bisarekin; Afrikatik eta Asiako zati batzuetatik sartzea, aldiz, ia debekatuta dago, eta horrek herrialdeen mugak ixteko eta horiek beste estatu batzuetara urruntzeko politika aplikatzea dakar berekin.

Hala ere, gaitasun ekonomikoak eta klaseak definitzen du ibilbide bat egin dezakezun ala ez, baita ibilbide bat edo bestea egin dezakezun ere, zure jatorrizko herrialdean zein zoazen tokian. Hala ezarrita dago legeetan, hainbat neurriren bidez. Nazionalitatea erosi egiten da, hau da, erosahaltzen altua baduzu, bermatuta izanen duzu «legezko» bizilekua.

Nolakoa deritzozu errefuxiatu kategoriari egiten zaion erabilerari?

Gizartearen parte izatera pasatuko diren pertsonen eta eskubideak edukitzea ahalbidetzen duten zein kategoria erabili horretan, *errefuxiatu* kategoriak migratzeko eta libreki zirkulatzeko eskubideei are zilegitasun handiagoa kendu die.

Europar Batasunak edota estatut batek aitortutako gatazka armatu bat gertatzen ari den eremu batetik bazatoz –gatazka existitzea bera ez da nahikoa–, irizten badiote arriskuan zaudela, *errefuxiatu* kategoria esleitu-ko dizute; ordea, arriskuan ez zaudela iruditzen bazaie, ez. Horrela, beste migratzaileen gisakoa bihurtuko zara, eta bertan geratuko zara baina egoera irregularrean (deportatzen ez bazaituzte, jakina). Horren adibide garbia da kategoria horretatik zein azkar baztertzen dituzten instituzioek izendatutako «kausa ekonomikoengatik migratzaileak».

Euskal Herrian asilo-eskaeren % 5 baino ez da onartzen, gutxi gorabehera. Egia esan, Europar Batasunak eta bere estatuek hala esan arren, ez dute asilo-politika onuragarri eta komunik. Oso hipokrita da gai honekin gertatzen ari dena. Ez hori bakarrik, hemen eta orain dena pentsatuta dago errefuxiatuek lan-merkatu erregularran urte batzuk kotizatu ahal izateko, baina gero merkatu irregularrera bultzatuak izateko. Izugarria da.

2015ean sortu zen elkartasun-olatuak –hondartza batean itotako Aylan-en argazkiaren harira batez ere– agerian utzi zuen hipokrisia, ez gizartearena bakarrik, bai eta klase politikoarena ere; izan ere, bat-batean, errefuxiatutzat jotzen zituzten horiekiko zurikeriazko diskurtsoa egiten hasi ziren, eta horrek gainerako langile migratuen eskubideak deserregularizatzen jarraitzeko balio izan zuen.

Errefuxiatuen eskubideen alde egindako errelato guztiak balio izan du, halaber, askatasunez zirkulatzeko eskubidea kriminalizatzen jarraitzeko eta herrialdeen mugak beste herrialde batzuetara urruntzeko akordioei eusten jarraitzeko, hala nola Turkiarekin egindako itunari. Espainiako Estatuak Marokorekin egindako itunaren oso antzera egin zen.

Horrela, Europar Batasunak eta haren luzapen armatuek (NATOk, esaterako) gatazka zer den eta zer ez definitzeko duten zeregina sendotu eta berresten dute. Zein eremu den «segurua» eta zein ez. 2015aren ondoren, birzonifikatu egin zen mundua. Sirian basatia izan zen, auzoka asilo-eskaerak onartzera edo ukatzera iritsi ziren, hortaz, une bakoitzean kontrola nork zuen, horren arabera zen asilo eskaerak onartzea edo ez.

Gauza bera gertatzen da «errefuxiatuen kuotak banatuko ditugu» esaten duten itun horiekin, Europar Batasunak legedia eta Dublingo protokoloak eta bestelakoak erabiliko dituela esaten duenean gertatzen dena bezala. Jakina, haren interesak eta diskurtsoa berresten jarraitzeko balio dute horiek, besterik ez. Nire ustez, gizarteak, gehienetan, ez du hori ulertzen, nahiz eta begi-bistakoa den. Adibidez, Alemaniak errefuxiatu kopuru jakin bat onartzea hitzartu zuen, herrialdean egoera irregularrean hongoi urte zeramatzaten ehunka pertsona jatorrizko herrialdera itzultzearen truke, eta hongoi urte asko dira –dutzen egoera duzula ere–. Zure ia bizitza osoa izan daiteke, eta zure sorterrirarekin harremanik ez izatea. Hala ere, Alemaniak bere burua harrera-herrialde gisa saldu zuen, eta, horrela, profil akademiko altuagoko pertsonak lortu zituen, laguntza ekonomikoak lortu zituen eta enpresentzat aukera paregabea izan zen: soldata baxuak eta dirulaguntza publikoak. Oso kasu argia izan zen, Alemaniako eta Turkiako enpresariak pertsonekin negoziatu zutelako, kromoak balira bezala. Horretan oinarritzen dira migrazio-eta asilo-politika.

Migrazio-politikak eta atzerritarren legeak dira, hain zuzen ere, estatuek Europar Batasunean sartzeko ordaindu beharreko prezioetako bat, bai eta aurretik dauden erakundee-tan sartzeko ere. Espainiako Estatuak, adibidez, Europako hegoaldeko herrialde *tapoi* gisa funtzionatzen du, eta hori da Europar Batasunarekin zein Marokorekin negoziatzeko era-biltzen duen kartetako bat.

**«Errefuxiatu»
kategoria
migratzeko eta
libreki zirkulatzeko
eskubideei are
zilegitasun
handiagoa
kendu die**

**Zure ustez, zein erreminta
erabiltzen dituzte pertsona
migratuen pobrezia-
egoera iraunarazteko?**

Atzeritarren Legea batik bat. Biztanleria kategorizatzea legeko bilakatu dute, hau da, legeko bihurtu dute *herritar* kategoria ez duen –eta, hortaz, eskubideen bermerik ere ez–, biztanleriaren zati bat egotea. Eta hori 1985etik. Hau Estatu Ituna da. Mundu guztiak daki, edonork gobernatzen duela ere, Atzeritarren Legea ez dela ukituko. Gainera, erreformek okerrera egin dute eta, hobera doala irudikatu nahi dutenean, abuztuan egin zutena egiten dute. Abuztuaren 15ean atzeritarrei buruzko araudian erreforma bat martxan jarri zuten, legegintzako herri-ekimen baten harira (hiri handietan migratutakoen hainbat elkarte gidatutakoa; 500.000 sinadura bildu zituen Espainian). Ekimenak baldintzarik eta eskakizunik gabeko ezohiko erregulazazio masiboa eskatzen zuen –ez da hainbeste eskatzea ere–. Orduan, Gobernua aurreratu, eta legegintzako herri-ekimena kontuan hartu gabe, erreforma hori martxan jartzea erabaki zuen, onberatasunez beterik. Horrela, lan-merkatuaren beharren eta patronalarekin hitzartu duten lan-erreformaren arabera egokitzapenak egiten dituzte. Zergatik? Izan ere, egoera irregularrean zeuden pertsonen kopuru izugarriak erabat kolokan jartzen zien planteamendua. Pentsa, errotze soziala justifikatzeko –erregularizatzeko modu nagusia da–, kontratu mugagabeak, urtebete baino gehiagoko kontratuak, hogeita hamar ordutik gorako lanaldiak... aurkeztu behar ziren. Amorrutik handia ematen du hipokrisiak eta ongi geratzeko erabiltzen duten onberatasun irudiak.

Atzeritarren Legeak egoera irregularrean dauden pertsonen poltsa beti hor egotea eragiten du. Pertsona horiek familia izan dezakete, estatuan nahiz kanpoan. Hori arau guztietan islatzen da, administrazio, hezkuntza eta osasun sistema bakoitzean... Labur esanda, oinarrizko eskubide guzti-guztiak zure herritartasun-kategoriak ezaugarritzen eta baldintzatzen ditu. Hori lan-kontratu bat edukitzearen, hura denboran mantentzearen edo kontratua duen pertsonarekin familia-harremanak izatearen mende dago etengabe.

Uste dut maskararik gabeko garai batean gaudela, hau da, migrazio-politikak eta Atzeritarren Legeak dakartena zer den jakin nahi baduzu, ez duzula teoria konplexurik behar. Egunerokoa ikusita eta legea bera irakurrita oso erraz duzu.

***Mundu guztiak daki,
edonork gobernatzen
duela ere, Atzeritarren
Legea ez dela ukituko***









Mekanismo espezifikoan bidez, beste jatorriko batzuetako emakume langileak are gehiago debalutzen al dira?

Legeetan, esplizituki, ez. Baina maila praktikoan argi dago baietz, eta zaurgarriago bilakatzen ditu. Bistakoa da zein lan-nitxotara (zaintzak, garbiketa...) bultzatzen diren emakume langile migratuak. Besteak beste, horren ondorioz, eskubide falta bortitzagoa da, adibidez, osasunaren kasuan; izan ere, emakume batek sarbide unibertsala bermatua ez badu, horrek zer egoeratan uzten ditu indarkeria matxista jasaten duten emakumeak, edonolako lan-istripuak izaten dituztenak eta familia-kargak dituztenak? Edo nola bermatzen da ginekologia-osasun egokia, hartara sarbiderik ere ez baduzu? Etxebizitzaren auzia ere larria da. Egoera hori dela eta, emakumea babesgabeago dago indarkeria matxistaren aurrean, eta tratatu txarrak ematen dizkionarekin bizitzera behartuta dago. Hori guztia kontuan hartuta salaketa bat jartzeak seme-alaben zaintza galtzea ekar diezaiokeela. Egoera irregularrean dauden emakumeen kasuak izan dira, eta salaketa jarri ondoren kanporatu egin dituzte. Fernando Grande-Marlaska magistratu eta Espainiako Gobernuako egungo Barne ministroak esan zuen Atzerritarren Legeak eta indarkeria matxistaren biktimak babesteko legeak maila bera zutela, eta, beraz, indarkeria matxistaren biktima den emakume bat kanporatzea legezkoa dela. Hara non pikutara bidaltzen duen esaldi horrekin biktimen babeserako estatutua. Zer esanik ez haien nagusien etxean lan egiten duten emakumeen aurkako indarkeria-kasuez, paperik ez dutenez ezin direlako salatu.

Kontuan hartu beharreko beste gai bat da modu irregularrean migratzen duten emakume gehienak –baita haurrak ere– ibilbideko une jakin batean desagertu egiten direla, salerosketaren biktima bihurtzen direlako. Hori onartzen da, eta migrazio-politikek sostengatzen dute.

Mafiei buruz hitz egiten denean, oso *barregarria* da agintariak nola egiten duten erabat ezikusiarena gai horren aurrean. «Emakumezkoen salerosketarekin traturik ez»? Sistema honetan pertsonak bazterretan bizirauten dute, eta *ez dakit zenbat* muga zeharkatzera behartzen dituzte. Mafien, salerosketaren eta abarren zuzeneko kausa EB eta haren estatuak dira.

Familiaren sostenguari gaia ere hor dago. Oro har, emakumeak dira Latinoamerikatik eta Erdialdeko Amerikatik migratzen dutenak, eta zaintza-kate globalei eusten diete. Gainera, kontuan hartu beharrekoa da guraso bakarreko familien ia ehuneko ehunean amak hartzen duela ardura.

Ez hori bakarrik, bizileku-txartela edukitzeko familia-harremanak izan behar dira. Agerikoa da horrek ere baduela eragin zuzena emakumeengan. Zer gaitasun duzu zure bikotekidearengandik bereizteko, bizileku-txartela galduko baduzu?

Estatuak beste jatorriko gazteekiko tratamendu bikoitza izaten du: «baberatu egiten zaitut, baina, aldi berean, kriminalizatu egiten zaitut». Unearen edo testuinguruaren arabera, bata edo bestea tokatzen da. Bakarrik migratzen duen adingabe bat egoteak agerian jartzen du sistema, eta Estatuak dio: «Ai, zer egingen dut zurekin? Baberatu egin behar zaitut, baina egiazki kanporatu egin nahi zaitut, esplotatu nahi zaitut, erabili nahi zaitut...».

Arrazakeria, ezkutatutako erasoak... Zer dira, erakundeek ezikusi egiten diete, eta, aldi berean, elikatzen dituzten tresnak?

Bai, noski, arrazakeria egunegun elikatzen da. Datu gisa, Espainiako Estatuan sartzen diren migratzaileen % 95ek ohiko bideetatik migratzen dute (lurretik eta airetik). % 5ek, ordea, bide irregularretik. Hala ere, komunikabideen fokua % 5 horretan dago etengabe, kriminalizazioaren eta mugak itxi eta segurtasuna bermatu behar diren errelato bat eraikitzea interesatzen zaielako. 2001. urteaz geroztik, Europar Batasuneko estatuak bereziki lotu nahi izan dituzte migrazio-prozesuak segurtasunarekin edo, hobeto esanda, segurtasunik ezarekin.



**Fernando Grande-Marlaska
magistratu eta Espainiako Gobernuko
egungo Barne ministroak esan
zuen Atzerritarren Legeak eta
indarkeria matxistaren biktimak
babesteko legeak maila bera
zutela, eta, beraz, indarkeria
matxistaren biktima den emakume
bat kanporatzea legezkoa dela**



A woman wearing a light-colored hijab and a patterned top is walking outdoors. The background is a blurred street scene with buildings and trees. A warm, golden light is overlaid on the entire image, creating a soft, ethereal atmosphere. The text is written in a bold, white, serif font, positioned in the lower half of the image.

***Gizarteratze-politika
horiei guztiei buruz esan
daitekeen gauzarik onena
da asimilazionistak
direla eta, okerrena,
kriminalizatu egiten dutela***



Erakunde burgesengandik jasotzen diren gutxieneko laguntzek zer bilatzen dute gehiago «laguntzea» edo «xantaia egitea»?

Nire ustez, babes sozialerako sistema, -besteak beste, oinarritzko premien estaldura ekonomikoa bermatzeko dela suposatzen dena, hau da, gizarteratzeko neurri izena dutenak-, konfiguratuta dagoen bezala, ahulduta eta deserregularizatuta dagoen biztanleriaren zatia kontrolatzeko mekanismo ezin hobea da. Kontrol eta errepresio mekanismo zuzena da.

Egoera irregularrean dagoen eta seme-alabak dituen emakume batek etxebizitza baten ordainketari aurre egin ezin dionean eta oinarritzko gizarte-prestazio bat eskatzen duenean, modu erregularrean lan egin ezin duelako, prestazio ekonomikoki bat ematen zaio, baina automatikoki *pack* horrek *begirada* bat dakar. «Zer behar duzu» esaldiaren ondoren, beste galdera batzuk datoz: «nola ari zara seme-alabak hazten», «nola daude zure seme-alabak eskolan», «nola ari zara betetzen zure betebeharrak edo kontraprestazioak». Emakume hori, babes sozialerako programan sartzen denetik ateratzen den arte, behatuta egonen da. Dena ondo badoa, arazorik ez, baina zerbaitek huts egiten badu fokua berarengan egonen da, erruduna bera izanen da. Hau da daukaguna.

Sistemak *lagun* zaitzan, egoera larrian egon behar duzu, baina ez oso larrian, orduan ez baitiozu jada balioko. Horrek ekarriko luke laguntzak kentzea, seme-alaben zaintza kentzea eta abar. Zer esan eta zer ez esan neurtzen aritu behar duzu, behar baino gehiago kexatu gabe. Laguntza eska dezakezu, baina ezin duzu guztiz erori.

Errenta bermaturako agiriak betetzen direnean, lauki bat dago, niri beti atentzioa eman didana eta begiak odoletan jartzen zizkidana ikusten nuenetan. Diru-sarrereri dagokie. Jakina, egoera irregularrean zaudenean elkarritzeta oso erraza


da, ez baituzu nortasun fiskalik ere. «Diru-sarrerarik?» Zero. «Diru-sarrera irregularrak?» Nola diru-sarrera irregularrak? Eta orduan aukerak jartzen dizkizute: «txatarra biltzeagatik, etxeetan lan egiteagatik, kaleko salmentagatik...». Baina nik uste dut baidirela hor agertzen ez diren eta denok ezagutzen ditugun bestelako lurpeko ekonomia batzuk, ezta? Argi dago gizarteko zein sektoreri galdetzen dion Estatuak zenbat diru irabazten duen eta zeini ez. Txorakeria dirudi, baina argi dago biztanleriaren zati bat beste bat baino behatuago dagoela. Ez bakarrik autoritate judizialagatik eta polizialagatik, baizik eta babes sozialerako sistema beragatik, zeinak biktimizatu eta kriminalizatu egiten baitu ustez premia handiena duen biztanleriaren sektorea.

Migratutako biztanleriari duintasuna lapurtzen ari zaie eta, baita biztanleria arrazializatuari ere, adibidez, ijitoei. Kontraprestazio ekonomikoki horren zati bat «nola bizitzen irakasteen» zentratzen da. Gogoan dut kide batzuek kontatu zidatela arropa lizartzeko eta etxea garbitzeko ikastaroetan sartu zituztela eta gizarte-hezitzaile bat jarri zietela. Hori indarkeria izugarria da: norbait nola bizi behar duzun irakastera etortzea, nahiz eta zuk, akaso munduan zehar ibilitako izan eta bazterrean bizita, estrategia ugari eduki. Zu jar zintezke ikastaro horiek ematen, baina jaso egiten dituzu.

Egoera erregularra ez izateak dakarren kaltea ez aitortzeaz eta ez konpontzeaz gain (ez da zure errua, ez erantzukizuna, arrazakeria instituzionala da), ikastaro bat eman behar dizute «hemengo» gizartearen parte izateko gai izan zaitezten.

Gizarteratze-politika horiei guztiei buruz esan daitekeen gauzarik onena da asimilazionistak direla, eta, okerre, kriminalizatu egiten dutela. Berrikuspen handi samarra egin beharko genieke babes sozialerako politika guztiei.

***Sistemak primeran
muntatua du guztia.
Bi merkatu ditu:
bata erregularra eta
bestea irregularra***



Zer funtzio betetzen du migrazioak sistemarentzat?

Sistemak primeran muntatua du guztia. Bi merkatu ditu: bata erregularra eta bestea irregularra. Biek langile klase bat dute eta, gainera, lan-nitxo berriak sortzen dituzte. Bestalde, zergak pertsona guztiek ordaintzen dituzte, haien egoera edonolakoa izanda ere. Eta, besteak beste, elikaduraren eta etxebizitzaren bidez gizentzen dituzte diru-kutxak.

Lurpeko lanen enpresa-etekina handia da. Eta etxeko lanez asko dago hitz egiteko. Zaintza lanak beste herrialde bateko jatorri bat dutenengan erortzen direnez, -eta, gehienak, egoera irregularrean egoten dira-, Estatuak ez du arazo historiko horren ardura hartzeko beharrik. Horrela, sistema kapitalistaren baitako zaintzaren auzia ebazten da. Badirudi badaudela inoiz erortzen ez diren merkatu eta nitxo batzuk; izan ere, poltsa bat dute beti horretarako prestatuta eta diseinatuta. Krimen perfektua da. Zer behar dut? Langileak. Zein nitxotan? Hauetan. Egoera irregularrean edo irregularrean? Nitxo batzuen-

tzat erregularrean hobe, bestela ea nola defendatuko dudan nire burua. Estatuak dakien arren, ezin duzu esan egoera horretan zaudenik, gauzarik oinarritzkoenak izateko erroldatuta egon behar duzu eta. Estatuak badaki zehazki zein pertsona dauden egoera irregularrean eta non dauden.

Administrazio-egoera irregularrean egotea hutsegite administrati-boa da, ez da delitua. Horren zigorra askatasuna kentzea eta lurraldetik kanporatzea izan daiteke, ez gehiago ez gutxiago. Gehienetan aplikatzen dena lurraldetik kanporatzea da, baina gehienetan ez da gauzatzen, beldurraren bidez kontrolatzeko mekanismo bat delako; Damoklesen ezpata etengabe izateko beldurra, alegia. Atzerritarrak barneratzeko zentroak, adibidez, atzerritarrak herrialdetik kanporatzeko tresnak direla suposatzen da, baina ez dira horretarako erabiltzen, baizik eta kasu gehienetan muga igarotzen duena identifikatzeko eta kontrol- eta beldur-mekanismo gisa erabiltzen dira. Gobernu bakar batek ere ez dio arreta berezirik jarri pertsonak kanporatzeari, nahiz eta beti kanporatze-ehuneko jakin bat mantentzen duten. Horrela, beharrezkoa zaienean, kontu eman dezakete eta delituak egiten dituztenak kanporatzen dituztela esaten dute. Benetan ezartzen den zigorra egoera irregularrean egotea dela esan nuke, baita zure egoera erregularizatzea lortu duzunean ere, berriz ere *irteera-laukira* eramanez baitzaitzakete, agintariek hala erabakitzen badute. EBk dio: «nahi dudanean utziko dizut sartzen, nik nahi dudanez bezala, eta nik nahi dudanez bezala egonen zara».







***Politikoki eragiteko modu berriak
egoteko espazioak ireki behar dira,
eta pertsona migratuen gaitasunak
garatzeko bide eman behar zaie***





Zeintzuk dira prozesu iraultzaile batean migratutako pertsonak ere antolatzeko gakoak?

Alde batetik, autoantolaketa ba-besteia, egitura blindatuz. Politikoki eragiteko modu berriak egoteko espazioak ireki behar dira, eta pertsona migratuen gaitasunak garatzeko bide eman behar zaie. Izan ere, antolaketa modu oso bat dago, politika egiteko modu oso bat, hego globaletik datorrena, eta hemen usaindu ere egiten ez duguna. Bestalde, ezin diogu arrazakeria –baita instituzionala ere– termino horietan salatzeari utzi. Indarkeria-mekanismo horiek guztiak ikusarazi behar dira, eta erantzukizuna non egon beharko litzatekeen adierazten jarraitu. Eta hori etengabe, Euskal Herrian adibidez, atzerritartasunarekin zerikusia duen guztia Estatuaren ardurapekoa dela esaten diguten arren, Estatuak beste ostiko bat ematen dio pilotari eta EBren kontuak direla esaten du. Askari da. Lege bat ez dela justua uste baduzu, biauukera dituzu: desobeditzea edo jasatea. Zorrari dagokionez, estatuek jada desobeditzen dute.

Mahai gainean atzerritarrentzako lege bat dagoen bitartean, ez dugu noiz eskubideen defentsa lortuko. Hori argi eduki behar da. 1985ean legea atera zenean, oinarritzko sindikalistak izan ziren antolatzen lehenak, ez bakarrik langile-klasearen aurkako eraso zuzena zelako, baizik eta neurrietako bat egoera irregularrean zegoen pertsona orori sindikatzea debekatzea zelako; azkenean, neurri hori atzera egitea lortu zen.

Kontuan izan behar da errepresioa beti bazkatuko dela ahulenarekin; beldurtua, kanporatua, askatasun gabetua, deserregularizatua izanen da. Nork du etxebizitza bat okupatzeko premia handiagoa? Errepresioa gordinagoa izanen da profil horiekiko. Jakina, antolatu ahal izatea bermatuko duten mekanismoak sortu beharko dira. Eta, jakina, antolatze gaitasun handiagoa dutenek berehalako beharrei erantzun behar diete. ●

Migrazioaren analisi kritiko batera hurbilpena

Testua — **Irati Zubizarreta**

Irudia — **Miren Alberdi**



KOKAPEN OROKORRA: LAN INDARRAREN MIGRAZIOA ETA HERRIALDE HARTZAILEEN ONURAK

Migrazioaren fenomenoak borondatezko auzi naturala baino, beharrian egoera batek bultzatutako mugimendua dela ulertu behar dugu. Gaurdaino, kapitalismoak miseria, goseteak, langabezia, hondamendi ekologikoak, gerrak, pertsekuzio politikoak eta biztanleria migratzera behartzen duten beste hainbat egoera sortu ditu. Mundu osoko populazioarekin alderatuta migratzaile kopurua nahiko txikia dela hauteman daitekeen arren (% 3,6 2020an[1]), ikusiko dugun eran, migrazioa elementu zentrala da sistema kapitalistaren mundu mailako garapen, orokortze prozesu nahiz krisien lausotze saiakeretan.

Hasteko, munduan kalkulaturako 283 milioi migratzaile internazionaletatik, 164 milioik (% 64) arrazoi ekonomikoengatik migratuko luke, hau da, lan eta bizi baldintza hobeen bila[2]. Horrek, funtsean, egungo migrazio internazionala lan indarraren migrazio gisa ezaugarritzen du. Migratzaileen parte hartze produktiboak (gainbalioaren ekoizpena) nahiz erreproduktiboak (langileen ekoizpen fisiko eta espiritual) ekarpen zuzena egiten diote herrialde hartzaileetako kapital metaketa prozesuari. Bestalde, migrazio fluxu horiek herrialde azpigaratuetatik (periferia kapitalista) herrialde garatuagoetara (zentro nahiz erdi-zentro kapitalistak) gauzatzen badira ere, alderantzizko joera ere nabari da. Alabaina, alderantzizko joera horietan, emigratzen duen herrialde garatuko industria bera kokatzen da herrialde azpigaratuan. Kasu zehatz horietan bidalitako lan indar kualifikatuaren aldi baterako erabilera bertakoekiko modu bereizian eta baldintza hobeetan izaten da. Horrenbestez, azken kasu horri ez zaio gehiegi erreparatuko.

Beraz, gure arreta periferia-zentro mugimenduan kokatuz gero, bigarrenari, hau da, herrialde hartzaileari dagokionez, honakoak lirarteke langileria atzerritar horretatik lortzen diren onura nagusiak:


- Herrialde hartzaileak lan indar etorri berria lan indar gisa sortzeko kostua aurrezten du, ez baititu bere gain hartu behar pertsona horien hezikuntza edota lan heziketak, besteak beste. Gainera, behin erabilia, lan indar autoktonoa baino merkeagoa izango da beretzat.

- Langileria atzerritarrari aitortutako eskubide formal (paperean adieraziak) eta errealek gabe, lan indar askoz ere zaurgarriagoa eta, beraz, erabilerrazagoa sortuko da, zeinak behar handiagoa izango duen lanaldia noiznahi luzatzeko, lan intentsitatea areagotzeko... Lan eta langabezia baldintza duinak izateko edo salaketarako inongo aukerarik gabe (migratzaile ilegaltzat hartzen direnen kasuan, bereziki). Era horretan, langile klase autoktono «gatazkatsu» edota garestiagoa langileria etorkin zaurgarriago batengatik ordezkaturiko da.

- Horrela, etorkinek osatutako langile aktibo eta langabetuen (erreserba armada) presioaren ondorioz, bertakoen soldatak nahiz lan baldintzak okertuko dira, eta horrek langile klase internazionalaren soldata gainbeherarako dagoen joera berresten du.

- Bestalde, herrialde hartzaileek bizi duten biztanleriaren zaharkitze etengabeak areagotutako arazoei irtenbidea emateko (pentsio sistemaren iraupena, kasu), desoreka lausotuko duen langileria aktibo berriaren sarrera aipa genezake. Edota, txanponaren beste aldean, are orokortuagoa den errealtatea; pensio sistema horretarako sarbiderik izango ez duen langileria, aipaturako gastu soziala aurrezteak dakarrena.

- Azkenik, aipaturako elementuek langile klasearen elkartasun antolatua kontrara, bere baitako zatiketa eta etsaitasuna sortuko dituzte. Ez elementuek bere horretan; burgesiak kontrolpean dituen instituzio, bitarteko zein komunikabideek lau haizetara zabalduko dituzten irakurketa interesatuek baizik. Irakurketa horiek orokortuak eta hegemonikoak izango dira gizartean: langileria autoktonoaren bizi baldintzen dekadentziaren arduradun izango dira atzeritik «bertakoen lana nahiz diru laguntzak lapurtzera» (sarritan «inbasioan») datozen horiek. Zatiketa hori, nola ez, burgesiaren biziraupen interesen mesedetan dator, langile klasearen batasuna ekiditea baita azken horrek leuka-keen potentzialtasun iraultzailea eragozteko premisa handienetako bat.



Azken puntu horri jarraikiz, atzerritar langileenganako sortuko den iritzi ezkorra ez da garrantzi txikikoa. Bada, kontrako iritzi sozial bat sortuz, herrialde hartzailean topatuko dituen lan eta bizi baldintza miserableak onartuak eta normalizatuak izango dira jendartean. Hots, kondizio miserableetan bizitzea «merezi duela» edota «berak bilatu duela» atxikitzen zaion subjektu baten iruditeria sortuko da, ondoren, behin kondizio horiek aplikatuta, inor asaldatu ez dadin. Finean, gizartearen iritzia moldatuko da Kapitalak langile klasearen sektore konkrituak era basatian esplotatu ditzan inongo arazorik gabe.

Bestalde, jatorrizko herrialdeen onurei erreparaturaz gero, nagusiki honakoa ikus genezake: nolabaiteko ekarpena lortu ohi dute emigratutako langileek euren familiei diru-bidalketak egiten dizkietenean («remesas»), horrek familien erreproduktzio kostuaren zati bat aurrezten duelako.

Egungo krisi orokor testuinguruan, gainera, aipatutako elementuen garrantzia areagotu egiten da. Izan ere, burgesiak bere etekinak handitzen jarraitzeko, berebiziko premia du lan indarraren erreproduktzio kostua ahalik eta baxuena izatea. Kasu horretan, ikusi modura, behar hori asetzeko modua langile etorkinengan topatuko du. Esandakoa irudikatze aldera, nekazaritza, eraikuntza, ostalaritza edota asistentzia-lanen adibideak jar genitzake. Sektore horiek lehiakorrak izatea ezinezkoa litzateke babesgabetasun egoerak ahalbidetutako esplotazio maila ikaragarriara azpiratzeko prest dagoen langileria langabe baten faltan, nekez lortuko litzateke-eta irabazi-tasa mantentzea. Nekazaritzan fokua jarritz, El Ejido hiriko (Almeria) egoera dugu lehen lerroan. Bertan gauzatzen den nekazaritza intentsiboan, egunerokoan era jarraian lan egiten duten 12.000 langileez haratago, 40.000 langile dituzte eskura, prest behar denerako. Azken horiek, era esporadikoan erabiliak dira, uzta jaso behar denerako, esaterako. Zonalde horretan negozioazio aukerarik gabeko biztanleria immigrante zabalik ez balego, zaila litzateke horrelako ezaugarriak dituen agertoki bat imajinatzea.





Kondizio miserableetan bizitzea «merezi duela» edota «berak bilatu duela» atxikitzen zaion subjektu baten iruditeria sortuko da, ondoren, behin kondizio horiek aplikatuta, inor asaldatu ez dadin. Finean, gizartearen iritzia moldatuko da Kapitalak langile klasearen sektore konketuak era basatian esplotatu ditzan inongo arazorik gabe



MIGRATZAILEEN LAN INDARRAREN ERABILERA

Esanak sakonago aztertzeako asmoz, eta bide batez, langile klasearen baitan sektore honek pairatzen duen lan indarraren debaluazio zehatza ikertzeako, autore marxista ezberdinek «superesplotazio» kontzeptua darabilte, hau da, esplotazioa bere azken mugetaraino eramatea, lan indarraren deuseztapeneraino. Kontzeptu horri jarraikiz, langile klase atzerriarrari lan indarra bere kostu minimoaren azpitik ordainduko zaio. Kostu minimo horren muga biziraupen fisikorako behar-beharrezkoak diren baliabideek definituko lukete. Beste hitz batzuetan, lan indarraren superesplotazioak bere erreprodukzio atrofiatua dakar: bizirauteko beharrezko baliabideetarako sarbiderik izan ezina (argia, ura, etxebizitza, osasungintza...) edota baliabide horien kalitatea okertzea (*fast food* merkea, esaterako). Ez dago esan beharrik kondizio horiek pertsonarengan eragiten dituzten kalteek (desnutrizioa, gaixotasunak nahiz horiek artatzeko ezintasuna...) sarri heriotza zuzen batera kondenatzen dutela hori pairatzen duen pertsona.

Ondorioz, bistan da langileria immigranteak bizi duen egoera krudelkeriak ezaugarritzen duela. Dena den, langile atzerriar izatearen baitan zenbait ezaugarri pertsona bera zaurgarriago egin dezakete: administrazio-egoera (legezkotasun-egoera), arraza- edo etnia-talde bateko kide izatea, herrialde hartzailearen ezaugarriak, jatorrizko herrialdearen eta herrialde hartzailearen arteko harreman interburgesak, generoa, adina, lan egiten duen ekoizpen-adarra...





IMMIGRAZIOAREN KONTROLA: ATZERRITARRAK ATXIKITZEKO ZENTROAK

Garbi dago, beraz, Kapitalari mesede berezia egiten diola immigrazioak, lan indar merkearen joan-etorri etengabearen markoan. Alabaina, mundu mailako migrazioaren kudeaketa erregimen baten pean, estatuek fluxu horien kontrol estua daramate, eta behar eta komeni zaien lan indarra sartzen eta soberan dituztenak (edota arrisku izan daitezkeenak) kanporatzen dituzte. Arlo horretan koka ditzakegu *barne-mugak* deiturikoak: barne polizien komisaldegia, kuartel militarrek, aduana postuak, portu eta aireportuen igarotze internazional puntuak... Baina, batez ere, Atzerritarrak Atxikitze Zentro (CIE) famatuak. Gaur-gaurkoz, Europar Batasunean 250etik gora daude, horietako zortzi Espainiako Estatuan. Espazio horien justifikazio juridikoari dagokionez, helburua zera litzateke: pertsona ordura arte atxikita edukitzea gehienez 60 egunez (ez nahitaez elkarren segidak), kanporatzeak kale egin ez dezan (ihesaldi posible batengatik). Errealtatean, baina, helburu hori ez da betetzen, mundu mailan agintzen diren eta azkenean gauzatzen diren kanporatze kopuruak % 30-40 artekoak baitira soilik. Kanporatzeak porrot egiteko arrazoi ezberdinak badaude ere, nagusia igaroko duen edota joango den herrialdeak pertsona hori ez onartzean datza. Kasu horietan, pertsona askatu eta «kanporaezintzat» hartuko da; kanporatze aginduak indarrean jarraituko du, ordea, aukera denean gauzatu dadin. Momentu horretan hasiko da hain orokortua den, baina aldi berean hain isilpean gertatzen den erokeria: pertsona horiek klandestinitate absolutuan biziraun beharko dute. Lan egiteko eskubiderik gabe, pisu bat alokatzeko aukerarik gabe, eta kanporatze agindu bat poltsikoan haien dokumentu legal modura. Gainera, gogorarazi behar da hirugarren herrialdeetara ere kanporatzeak egiten direla, hau da, ez jatorrizko herrialdera. Era berean, garrantzitsua da nabarmentzea aire-konpainiek parte hartu dutela deportazio-hegaldi pribatu eta komertzialetan.

Legalki presondegietatik bereizi nahi badira ere, errealki immigrazioaren zigor espetxe bilakatzen dira. Bi desberdintasun nagusirekin: alde batetik, espetxeratuek ez dute deliturik, paperik ez izatea falta administratibo bat baita. Bestalde, errepresio-indarrei zentro horiek kontrolatzeak eta kudeatzeak dakarkien zigorgabetasuna Espainiako poliziaren eskutik. Espainiako zenbait atxikitze zentro iraganeko espetxeetan (Madrilen eta Malagan, kasu) nahiz barruti militarretan (Algeciras) kokatzen dira. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan atxilotzen diren gehienak aipatutako Madrilgo zentrorara eramaten dituzte, orain CIE Aluche izendatua baina errealki iraganeko Carabanchel espetxea dena. Ez da zaila asmatzea, beraz, zentro horiek barrutik duten itxura nahiz funtzionamendua: zeldak logela modura, kameren presentzia itogarria, aisialdi ekintzarik eza, polizien jazartze jasangaitza, espazio nahiz elikadura osasungaitzak... Atxikitze zentroen sorreratik gaurdaino, hamar heriotza ezagutarazi dira Espainiako Estatuan, eta inongo ikerketa zein ondorio penalik ez da egon.

Zentro horiek dokumenturik gabeko atzerritarrak («irregular» edota «ilegal» izendatua) zuzenean delitugile arriskutsua den ideia hedatzen dute, eta gizarteari bi mezu helarazten zaizkio horrela. Batetik, proletarizazio prozesu bizian dagoen, eta, beraz, etorkizun ziurgabea ikusten duen langile klase autoktonoaren aurrean lasaitasunaren, ordenaren eta kontrolaren mezua zabaltzen da, kanpotik etorrita euren egoera ezegonkorra are ezegonkorrago bihurtu dezaketen gaizkile horiek kontrolpean eta gotortuta izanda. Bestetik, proletalgo atzerritarrari helarazten zaio harenganako jarraipen, jazartze eta kriminalizazio sutsua egingo dela.



**Mundu mailako
migrazioaren
kudeaketa erregimen
baten pean, estatuek
fluxu horien kontrol
estua daramate,
eta behar eta
komeni zaien lan
indarra sartzen eta
soberan dituztenak
(edota arrisku izan
daitezkeenak)
kanporatzen dituzte**

Hori gutxi balitz, atxikitze zentroetako egoera larrienetako bat gazteen presentzia da –gehienak mugan bertan geldiarazten dituzte helduen akonpainamendurik gabe–. Kasu horietan, Espainiako Estatua behin eta berriz izan da salatua adin txikiko gazteak 18 urtetik gorakotzat izendatzeagatik, baita gazteek kontrakoa frogatzeaz ere. Beste kasu batzuetan, gazteek, zeharka bizi ohi dituzte zentroaren ondorioak, haien familia-kideak gotortu eta akonpainamendurik gabe kalean gelditzen baitira (gehienetan haurren kargu diren emakumeak atxilotzean).

Azkenik, emakumeek zentroetan pairatzen duten egoera mahaigaineratu beharrekoa da. Izan ere, jakina da zentro horietan giltzapetuta dauden emakume asko sexu-abusuen eta prostituzio-trafikoaren biktima direla. Ez hori bakarrik, emakume horiek kanporatu eta jatorrizko herrialdera itzularaztean, maiz, ihes egin nahi zuten sare horietara bueltarazten dituzte. Horrela, zentroek prostituzio sareekin lotura zuzena izan ohi dute; izan barnean aritzen direnean ez-ikusiarrena egiten dutelako, edo izan sare horietatik ihes egin dutenak berriro haietara itzularazten dituztelako.



**Zentro horiek
dokumenturik
gabeko atzerritarra
(«irregular» edota
«ilegal» izendatua)
zuzenean delitugile
arriskutsua den ideia
hedatzen dute**



INTEGRAZIO SOZIALA AZTERGAI

Baliabide urrien aurrean (lanpostu, etxebizitza, diru-laguntzak...) migratzaileak konpetentzia desleiala egiten duten eta delitugile arriskutsu diren ideari identitate nazionalaren kontrako mehatxuzitatea erantzen zaio. Bestela esanda, atzerriko proletarioaren ezaugarri kulturalak herrialde hartzailearen usteko elkarbizitza harmoniatsuen nahiz batasunaren apurtzaile modura identifikatzen dira. Beraz, etorrera horiek kolokan jarriko lituzkete nazio-estatuaren oinarri gorenak. Lehen begiradan, ideia erreakzionario eta zeharo xenofobo/arrazista badirudi ere, ideia horrek uste baino onarpen sozial handiagoa du gurean. Asimilazio erabatekoa babesten duten horietatik (bereizgarri kulturalen ezabapena) hasi, eta «aniztasunaren» aterkipean integrazio politago bat aldarrikatzen duten sozialdemokratetarako, oinarrian, izateko, pentsatzeko eta jokatzeko modu zehatzak derrigortzen dira: bertako *status quo*-a kaltetuko ez duena, normaltasuna bermatuko duena eta ordena sozial burgesari ekarpena egingo diona.

Dena den, jo dezagun orain gizarte zerbitzueta-
ra, instituzio horren bihotz oneko maskara humanista desestaltzera. Ongizate Estatuaren baitan kokatzen den alor horrek, «auzi sozialari» erantzungo lioke, asistentzia lan baten bidez. Itxuraz, badirudi problematika sozial ezberdinei erantzuteko borondatez jaioa eta mantendua dela, gizartearen konpromiso sozialaren isla. Errealitatea, baina, oso bestelakoa da.

Estatuak saldu nahi duen borondate oneko berdintasun eta soldatabanaketa baino, oinarrian egongo dena aipatutako kapital inbertsioa handitzea izango da, ezberdintasun sozial horien erreprodukzioaren eragilea, hain zuzen



- Asistentzia programa horiekin, batetik, Estatuaren kontraktasunak neutralizatzea bilatzen da, harekiko atxikipen eta onarpena bultzatuz langile-riaren barruan. Horrek problematika horien uler-kerak okerrean sakontzen du, aditzera eman nahi baita instituzio burges horiek ez dutela zerikusirik jazotzen diren gertaerekin[3]. Beraz, gizarte anto-laketa egoki batean naturalki ematen diren egoera «akastun» gisa ulertuz, horien ebazpena gizarte eredu horretan bertan bilatzen da, eta, horrela, anto-laketa horren gaindipenerako ideia bera zapuz-tuta gelditzen da. Horrek, aldi berean, langile kla-searen despolitizazioan eragiten du, jendea aktibo militante izatetik ikusle pasibo izatera zokoratzen baitu.

- Aipatutako helburuaz haratago, martxan jarri-ko diren asistentzia programak ekimen pribatuek bidera ditzaten pentsatuta daude, kapital inbertsio-rako edota onura fiskalerako eremu bilakatuz. Ho-rrek asistentziaren kalitatea bera ezbaian jartzen du, zerbitzua enpresen errentagarritasunari azpi-ratua izango baita.

- Aurrekoari jarraikiz, asistentzia zerbitzu ho-riek, modu oso edo partzialean, langile klaseak be-rak ordaindu beharreko gastu sozial bilakatzen di-ra, zeina aipatu enpresen diru mailegu bilakatuko den. Horrela, Estatuak saldu nahi duen borondate oneko berdintasun eta soldata-banaketa baino, oi-narriaren egongo dena aipatutako kapital inbertsioa handitzea izango da, ezberdintasun sozial horien erreprodukzioaren eragilea, hain zuzen.

Horrela, etorkinek pairatu behar duten erreali-tatea arindu nahirik, ezinbestean Estatuaren kon-trolpean dauden hainbat eta hainbat elkarte ikus genitzake. Lehenik, Estatuak immigrazioari gizar-te zerbitzuetatik erantzuteko estrategia orokor bat ezarriko du. Bigarrenik, eskualde administratibo bakoitzak horren araberrako plan bat (ildo oroko-rrak) diseinatuko du. Jarraian, plan horren arabe-rako programa ezberdinak diseinatuko dira, alor ezberdinei erantzungo dietenak (etxebizitza, en-plegua, hezkuntza, hizkuntza...). Azkenik, programa horiek gauzatzeko, proiektu konkretuak jarriko di-ra martxan. Horrela, aipatutako proiektuak gizarte zerbitzuen barne diren sailek zuzenean kudeatzeaz gain, elkarte mordo bat egongo da hitzarmen bidez proiektu horietara lotuta. Batetik, hitzarmenak el-karteei diru kuota bat ahalbidetuko die[4] (haien jardunerako beharrezkoa izango dutena); bestetik, Estatuari kontrol bermea emango dion katea izango da. Modu horretan, elkarte horien lana zeharo de-terminatuta egongo da Estatuaren (esentzian, Kapi-talaren) interesen arabera. Are, aurretik aipatu modura, elkarte horiek errentagarritasuna bilatzen duten enpresa pribatuak izaten dira maiz; Caixa-Bank edota BBVA horren erakusle. Azken horiek, etorkinen bueltan egiten dituzten inbertsioekin aurpegi zuriketa garbi bat bilatzen dute (langileriak begi onez ikus ditzan), zeina haien irabazi ekono-mikoetan islatuko den.

Esanak esan, komunista modura, kontraesan-korra litzateke gainditu nahi dugun gizarte orde-na bera ontzat jotzen duen gizarteratze baten alde egitea. Are gehiago, konturatuko gara errealtatean etorkin proletalgora jada integratua dagoela, Kapi-talak berari esleitu dion tokian: lumpenproletalgo potentzial gisa. Horrenbestez, nahiz eta egon dai-tezkeen borondate onak gidatuta bizi-kondizio pe-nagarriak baretu nahi dituztenak, esentzian egoe-ra bera apaindu eta betikotu baino ez dute egiten. Modu berean, kontua ez da gobernuan boterean di-renek atzerritarrekiko zein jarrera duten. Hau da, ez da ezein parlamentutan adostutako erabakiek eraldatu dezaketen errealtate bat. Kontrara, prole-talgoak era internazionalen antolaturiko gizarte eraldaketa orokorra da bide posible bakarra, ho-rren oinarriak hautsiz eta denon onurarako berriak eraikiz. Bide horretan, paternalismo kutsu handiz immigranteak nola gizarteratu eta nola ez pentsa-tzen dutenen aldean, gure hautua gaurdanik haien borroka adierazpen ezberdinei erreparatu, gureak ere badirela ulertu, eta sozialismoaren eraikuntza-ren baitan integratzea litzateke. ●



BIBLIOGRAFIA

Cocks, P. (1980). *Towards a Marxist Theory of European Integration*. International Organization, University of Wisconsin.

De Lucas, J. eta **Torres, F.** (2002). *Inmigrantes: ¿Cómo los tenemos?: Algunos desafíos y (malas) respuestas*. Madrid. Talasa.

Defensor del pueblo. (2020, junio). *La contribución de la inmigración a la economía española*. Estudio (N.º 2).

Gil F. eta **Juliana G.** (2019) *Superexplotación del trabajo en el siglo XXI*. Portugal: El Tiple.

Gobierno Vasco. (2022, octubre). *VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo 2022-2025 (vi)*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

• (2018, octubre). *Pacto Social Vasco para la Migración*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

González Cámara, Noelia. (2011) *Migrantes, procesos de irregularización y lógicas de acumulación y exclusión. Un estudio desde la filosofía política*. Departament d'humanitats.

Harvey, D. (2007) *Breve historia del neoliberalismo*. Madrid. Akal.

Iamamoto, Marilda V. (1992) *Servicio social y división de trabajo. Un análisis crítico de sus fundamentos*. Brasil.

Marini, Ruy Mauro. (1973) *Dialéctica de la Dependencia*. México, DF. Ediciones Era.

Mezzadra, S. (2012). *Capitalismo, migraciones y luchas sociales. La mirada de la autonomía*. Nueva sociedad, 237.

Molina, M. C. (2016, 19 octubre). *¿Por qué el CIE de Aluche es conocido como el «Guantánamo español»? El Salto*.

Netto, J.P. (1992) *Capitalismo monopolista y Servicio Social*. Cortes Editora.

Organización Internacional para las Migraciones. (2022, septiembre). *Informe sobre las migraciones en el mundo 2022 (N.º 1)*. Ginebra.

Peña López, A. A. (2013) *Migración Internacional Y Superexplotación Del Trabajo*. Ítaca.

Rodríguez, M. (2021, 29 marzo). *La muerte de Marouan Abouobaida en el CIE de València no tendrá responsables penales*. El salto.

Tomé García, J. A. (2014) *Internamiento preventivo de extranjeros conforme al nuevo reglamento de los CIE*. Madrid.

Wallerstein, I. (2017). *La izquierda global contra la derecha global: De 1945 a la fecha*. Mexico. Dirección General de Publicaciones y Fomento Editorial (UNAM).

• (2021). *El problema de las migraciones no puede ser resuelto dentro de este sistema-mundo*. Nota antropológica.

• (2002). *Inmigrantes*. La Jornada.

ERREFERENTZIAK

[1] Kontuan hartu eskura ditugun estatistikak ez direla guztiz fidagarriak. Izan ere, mundu-mailako migratzaile kopuruak eskuratzeko, estatuetako datu-erregistroetara jotzen da. Horrek bi arazo dakartza: alde batetik, estatu bakoitzak migrazioak ezaugarritzeko nahiz hauek zenbatzeko modu ezberdinak erabiltzen ditu. Beste aldetik, kasu askotan dokumenturik gabeko migratzaileak (ilegalki daudenak) ez dira kontabilizatzen. Horrenbestez, posible da datu hauek berez handiagoak izatea.

[2] Etorkizuna ilun ikusten da puntu honetan. Izan ere, inteligentzia artifizialean oinarritutako lan ez kualifikatuaren automatizaziorako tendentzia gorakorrak migrazioa bera bultzatzen duen faktore ekonomikoaren urritzea ekar lezake. Bestela esanda, herrialde garatuetoako ohiko lan ez kualifikatuaren automatizazioak, hein handi batean berau gauzatzen duen lan indar immigrantearen beharra alboratzen du. Informe burges ezberdinek jada aipatzen dituzte horien ondorioak Arabia Saudin, Bahreinen, Egipton, Arabiar Emirerri Batuetan, Kuwaiten edota Omanen, besteak beste.

[3] Kontuan hartu, gainera, Estatu aparatua dela etorkina legal edo ilegal izango den erabakitzen duen instituzioa, bertaratutako herrialdean herritar edota immigrante izango den determinatuko duena. Zentzu horretan, hari dagokio desjabetu kondizioaren erreproduzio legalaren ardura.

[4] Hitzarmen hauek ahalbidetutako diru kantitatea elkarrekin berak gobernuaren proiektuak bete nahi dituen helburuen asebetetze mailaren arabera izango da. Hau da, gero eta gehiago bete estatuaren nahia, orduan eta diru kuota handiagoa. Diziplinamendu funtzio zuzena du, beraz.

Argitalpena
2022KO URRIA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia


arteka

